



Dotore jantzita

Arg.: M. Albisu



hemen

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA

Ondo ibili oporretan

Abuztuaren
3 arte

*Ongi antolatzeak
sorrarazten duen poza*

Kostu baxuko
elektroa:

**BIGARREN
BIZITOKIARI
ZUZENDUA**

Igerilekuak eta
akzesorioak:

**PREZIO
FRESKAGARRIAK**

Aire-egokigailuak:
**AURREKONTUAK,
ZURE KONTURA**

Automobilerako
OSAGARRIAK:

**BIDAIATU EZAZU
ARRISKATU GABE**

PRYCA

**GOIERRI
MERKATARITZA ZENTROAK**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrek Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Arano,
Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Koldo Urrestara-
zu, Urko Irastorza, Josune Alda-
be, Edurne Albizu, Josune Amon-
darain, Aitziber Murua, Rufino
Iraola, Aitor Arrue, Karlos Ioldi,
eta Iñaki Erauskin.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9, Oñati)

Tirada: 6.500 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Antzizarko lotunetik
Ormaiztegiainoko bidea irekirik**

Ekainaren 27an inauguratu zen Beasaingo Antzizar lotunetik Ormaiztegiainoko lotunera doan bide zatia. Era honetan, Beasain-Zumarraga-Bergara-Durango zehar ardatzeko autobaien lehen 3 kilometroak jarri dira martxan.

Antzizar lotunea duela bi urte bukatu zen, N-1 errepidea bikoizterakoan. Hormigoizko 10 piloteko egiturak osatua da ia oso-osorik lotune hau. Lan honek 1.220 milioiko kostua izan zuen.

Antzizarko lotunearen bukaera hasi eta Ormaiztegiainoko telleria zaharrera doan zatiak, 2,5 kilometro ditu. Autobia da. Gipuzkoako Diputaziotik zehaztu dutenez, obra honetan egin behar izan diren lur mugiketak handiak izan dira: 700.000 m³ baino gehiago hondeatu eta 60 metro gorainoko lur erauzketak egin dira. 225

metroko 5 begiko bidezubi bat ere egin da, Salbatore auzoaren ondoan.

Zailtasunik handienak horretan izan dituzte. Bidezubiaren egonkortasuna ziurtatzeko, lur erauzketa batzuen ezpondak bigarren aldiz kalkulatu eta aldatu egin behar izan dira, baita drenajeak egin ere, uraren indarra gutxitzeko.

Bide zati honekin, Beasaindik Ormaiztegiainoko bide zatiak 600 metro gutxiago izango ditu. Gainera, zirkulazioa arindu egingo da Antzizarko Katea bidekorapiloan eta GI-632 errepideko fabrika ondoetako zatietan.

Inaugurazioan Beasain, Olaberria, Ormaiztegi eta Ezkio-Itsasoko alkateak eta Udal ordezkariak izan ziren, Jose Julian Irizar Garraio eta errepide diputatua erekin batera.

BOTA BERTSOA



Joxe Munduate

Herri txikietako festak

*Doinua: Guardia Zibilak
hau dio*

San Juan eta San Pedro
Santaisabelak gero
trikiti eta ardo artean
denak bero-bero
hiru bat taberna edo
beste hainbeste bezero
festa txikiak erraldoi egin
besterik ez dut espero.

Herri txikien aukera
festetan onena bera
neroni ere ibiliko naiz
batetik bestera
hiri haundiak, bai zera!
Joan gaitezen geurera
ohitura zaharrak plazaratzeko
festa hoiekin batera.

**Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA  **doan**

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Mila esker Lazkao

Argentina eta Uruguaitik beka baten bidez Lazkaora euskara ikastera urtarrelean etorri eta 6 hilabete egin ondoren etxera itzultzeko ordua iritsi zaigu. Euskal Herriko gure herrian lortutako harremanen aurrean, gure barnean gelditu dena azaldu nahi dugu, guretzat zein garrantzia duzuen Lazkao hain goxoa egiten duzuenok.

Amerikan txikitatik entzun izan dugu Euskal Herriari buruz hizketan. Beti izan dugu etorri eta hau nolakoa den ezagutzeko gogo. Euskara ikastera etortzeko aukera izan genuen. Euskara ikasi eta ezagutzeaz gain, gure asmoa bertako jendearekin harremana izatea zen. Hau baita bide bakarra leku bat benetan eza-
gutzeko.

Lazkaon familietan ego-
tea izan da bidea jendea ezagutzeko. Hemengo gure familietan bertako kide bat gehiago izango bagina bezala sentitu gara. Gure familietako kideek ere oso ondo ulertu dituzte gure ohiturak. Euskara jakitea ere giltza bat izan da jendearekin harremanan izateko. Harreman guztiak euskaraz izan dira eta hori oso garrantzitsua da guretzat, euskaraz bizi den inguru bat izatea lortu dugu.

Jendea asko ireki da gurekin, harremanak izan dira egonaldiko garrantzitsuena, jendearen sentimendu, anekdota, asmoak... ezagutzea. Kalera atera eta beti norbait izan dugu hitz egiteko, herriko parte sentitu gara. Azken aldian asteen zehar Donostian egon bagara ere, Lazkao izan da gure he-

rria eta ahal izan dugun guztietan itzuli gara.

Beti izan ditugu lazkaotarrak gure inguruan eta hauen bidez hainbat leku eta egoera ikusi eta ezagutzeko aukera izan dugu, herriko festak, beste herrieta-koak, Euskal Herriko hainbat leku. Beti norbait prest egon da guri zerbait erakutsi edo nonbaitera eramateko.

Ezinezkoa da gutun batean jende guztiari merezi duen esker ona azaltzea. Dena den pertsona guztiei banan-banan eskerrak ematea ezinezkoa denez, lerro hauen bidez gure inguruan izan diren lazkaotarrei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, aldi berean ba-koitzari besarkada handi bat. Ez dago hitzik lortu ditugun harreman ederrak azaltzeko.

Hemendik joandakoan ezingo gara jendeaz ahaztu eta ezin dugu pentsatu agian bizitza osoan ez ditugula ikusiko, ahaleginak egingo ditugu Lazkaora itzultzeko. Gure etxeetan ere hemengo jendeak beti izango du lekua, saiatuko gara guk hemen izan dugun harrera han ematen.

Hitz hauek denak topikoak badirudite ere, zerbait berezia izan da Lazkao guretzat. Orain Euskal Herrian ere badugu herri bat, familia bat, hainbat lagun. Mila esker eta mila musu denoi.

Rocio eta Panpi



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE



Urtean 1.500 pezetako kuota bakarrik ordainduta,

GOIERRITARRA aldizkaria lagundu dezakezu

Izen abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **Adina:** **NAN:**

Lanbidea: **Banketxea:** **Bulegoa:**

Kodea: **Kontu zenbakia:**

Mila esker Lazkao

Argentina eta Uruguaitik beka baten bidez Lazkaora euskara ikastera urtarrean etorri eta 6 hilabete egin ondoren etxera itzultzeko ordua iritsi zaigu. Euskal Herriko gure herrian lortutako harremanen aurrean, gure barnean gelditu dena azaldu nahi dugu, guretzat zein garrantzia duzun Lazkao hain goxoa egiten duzue-nok.

Amerikan txikitatik entzun izan dugu Euskal Herriari buruz hizketan. Beti izan dugu etorri eta hau nolakoa den ezagutzeko go-goa. Euskara ikastera etortzeko aukera izan genuen. Euskara ikasi eta ezagutzeaz gain, gure asmoa bertako jendearekin harremana izatea zen. Hau baita bide bakarra leku bat benetan ezagutzeko.

Lazkaon familietan egoitea izan da bidea jendea ezagutzeko. Hemengo gure familietan bertako kide bat gehiago izango bagina bezala sentitu gara. Gure familietako kideek ere oso ondo ulertu dituzte gure ohiturak. Euskara jakitea ere giltza bat izan da jendearekin harremanan izateko. Harreman guztiak euskaraz izan dira eta hori oso garrantzitsua da guretzat, euskaraz bizi den inguru bat izatea lortu dugu.

Jendea asko ireki da gurekin, harremanak izan dira egonaldiko garrantzitsuena, jendearen sentimendu, anekdota, asmoak... ezagutzea. Kalera atera eta beti norbait izan dugu hitz egiteko, herriko parte sentitu gara. Azken aldian asteen zehar Donostian egon bagara ere, Lazkao izan da gure he-

rria eta ahal izan dugun guztietan itzuli gara.

Beti izan ditugu lazkaotarrak gure inguruan eta hauen bidez hainbat leku eta egoera ikusi eta ezagutzeko aukera izan dugu, herriko festak, beste herrieta-koak, Euskal Herriko hainbat leku. Beti norbait prest egon da guri zerbait erakutsi edo nonbaitera eramateko.

Ezinezkoa da gutun batean jende guztiari merezi duen esker ona azaltzea. Dena den pertsona guztiei banan-banan eskerrak ematea ezinezkoa denez, lerro hauen bidez gure inguruan izan diren lazkaotarrei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, aldi berean ba-koitzari besarkada handi bat. Ez dago hitzik lortu ditugun harreman ederrak azaltzeko.

Hemendik joandakoan ezingo gara jendeaz ahaztu eta ezin dugu pentsatu agian bizitza osoan ez ditugula ikusiko, ahaleginak egingo ditugu Lazkaora itzultzeko. Gure etxeetan ere hemengo jendeak beti izango du lekua, saiatuko gara guk hemen izan dugun harrera han ematen.

Hitz hauek denak topikoak badirudite ere, zerbait berezia izan da Lazkao guretzat. Orain Euskal Herrian ere badugu herri bat, familia bat, hainbat lagun. Mila esker eta mila musu denoi.

Rocio eta Panpi



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE



Urtean 1.500 pezetako kuota bakarrik ordainduta,

GOIERRITARRA aldizkaria lagundu dezakezu

Izen abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **Adina:** **NAN:**

Lanbidea: **Banketxea:** **Bulegoa:**

Kodea: **Kontu zenbakia:**

TXANDAKA

Plataforma

Jatorriz burdina edo oholezko euskarri fisikoa izanik, kontzeptu abstratu eta bariatuenak adierazte-rainoko lerradura semantikoa izan duen modako hitza. Eta Ezinezkoa litzateke bizitzan zehar zenbat plataformatan parte hartu dugun kontatzea. Ezinezkoa bidean zenbat apurtu diren eta beren helburua beteta, txukun-txukun, desmontatu direnak zenbatzea ere. Bestalde, ez dut jakin ere egin nahi, bultz eginda, propio botatakoak zenbat diren. Eta xede hau aipatu baina beste harengatik montaturikoak? Gainera, herri honetan plataforma bakarra ikustea miraria da; bataren ondoan, ia-ia beti, han azalduko da bestea. Ia-ia beti ez, beti!

Etxegarateren bikoizteari buruz dihardut. Bi prentsaurreko irakurria naiz, bata PSE-EEK emana eta bestea HBk eskainia. Ez dago mila alde bi plataformen artean: diru puska bat eta amaiera-epe finkoa eskatzen dituzte, baina bi plataforma dira eta, gainera, elkar kritikatzan dute. PSE-EEK HBri: «zuena, beti bezala, "pataleta" bat eta ibai nahasian amuarrain bila ibiltzea baino ez duk». Eta honek hari: «zuena, berriz, "patadita" bat, eta ostikada handiagoak behar ditek Etxegarateko aldapa berdinduko bada». Eta EAJ/PNVk igual esango die bie: «ez gabiltzak dirurik gabe egiteko asmotan, eta zer uste duzue, inoiz ez dugula bukatuko?».

Harrigarriena, hala ere, plataforma ideologikoei duten indarra da, baita kamioak egiteko irizpideak zehazterakoan ere: hamar injineruk baino handiagoa. Galdetu, bestela, EAJ/PNVko Etxegarateren aldeko plataforma utzi duten bost alkateei; edo... Debaldekoei.

Rufino Iraola



Zein da zure ametsetako bidaina?




Jon Ormaetxea
17 urte, ikaslea
zaldibitarra

Herritik ateratzearekin nahikoa dut, baina Port Aventura ikustea gustatuko litzaidake. Brasilera ere gustora joango nintzake.

Joseba Arruabarrena
15 urte, ikaslea
zaldibitarra

Ondo pasatzera Karibe aldera joango nintzateke. Leku ikusgarriak ikustera, berriz, Canada aldera.



Joxe Ramon Sukia
50 urte, egunkari saltzailea
zaldibitarra

Kubara joango nintzateke. Leku ona dela, giro ona dagoela... esaten dute. Emakumeak ere bai...



Xikel

NEVES
BANATZAILEA

Urdeneta, 41 ☎ 161606
ORDIZIA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



**-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR**

**-ESKAILERAK
NEURRITARA**




Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

VIII. Gerriko Ikerlan-sariketako oinarriak

Argitaratu dira VIII. Gerriko Ikerlan-sariketako oinarriak. Ikerlanaren gaiak Goierri dagokion edozein zientzi alorretakoak izan daitezke. Euskarazko lan originalak onartuko dira. Lanen luzera: 100 Dina A-4koa, konputagailuz idatzia. Ikerlanak jasozeiko epea 1998ko martxoaren 18an, arratsaldeko 8etan, itxiko da. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartera bidali beharko dira lanak: Lazkaoko Elozegi 16, 1.a ezkerre. Informazio gehiago 16 02 82 telefonoan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia-Ordizia).

5 - 6: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain).

12 - 13: Larnaga (Kale Nagusia, 40 - Ordizia).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Bilbon San Inazio auzoko pisu baterako jendea behar da. 11.000 pezeta. Eider. 16 16 60.

☐ Lagun bat behar da Ordizian pisua osatzeko, uztailetik hasita. Zentruan dago, egutera, jantzia, egoera eta modu onekoa. 16 18 35. Jon.

☐ Hurrengo kurtsoan Iruñean pisua osatzeko 3 ikasle behar dira. 65 32 69. Maialen.

12:00etatik 14:00etara.
806552.

☐ 'Can-can'-a salgai. Behin erabilia. Oso egoera onean. Prezio onean. Deitu 12:00etatik 14:00etara. 806552.

☐ Amnistiadun sinboloa duen forro polarra saltzen dut. Merke eta ona. Reflecta proiektorea ere bai, 15.000 pezetan. Biak egoera onean. Koldo 88 22 78.

☐ Citroen AX autoa salgai, SS - Z matrikuladuna. 5 atekoa. 72 35 04.

☐ Segadera salgai, Reblu diesela. Berria. 80 13 58. Iluntzeko 7etatik 9etara deitu.

☐ Solariuma salgai, Ergoline markakoa. Berria da. 895513. Eguerdietan edo gauetan deitu.

☐ Tresillo berri-berria salgai. 88 96 87. Deitu iluntzeko 8.00etatik 10.00etara.

☐ Taberna bat traspasatzen da Lodosan. Lurdes. 948 - 69 36 75.

Lana:

☐ 2 neska euskaldunok (erdaraz ere badakigu) udan haurrak zainduko genituzke. 88 60 83.

☐ Irailan Au-pair bezala Londresera joan nahi baduzu, deitu. Guztia dohai-nik. Oso famili jatorra. Telefonoa: 88 47 95.

☐ Karta astralak egiten dira, baita tarota irakurri ere. Mila Aierbe. 16 13 78.

Salerosketak:


☐ AX autoaren parrila salgai. Estreinu gabea. Deitu 12:00etatik 14:00etara. 80 65 52.

☐ Estufa radiadore oliodun elektrikoa salgai. 'Cata' markakoa, 2.500 W. Urtebete dauka. Behin bakarrik erabilia. Prezio onean. Deitu

lues rothers
BEASAIN

PUB
ASTI

Zaldizurreta kalea
88 45 06 **BEASAIN**



X ENKEGI
ETXE-ARROZKINTZA

Diseinuak neurritan
Larunbat arratsaldean irekita

Erakusketako eta faxa: 889113 - mugikorra: 908 863591
Senpere Merkatalgunea, 38 BEASAIN

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak

IKASTEK AKADEMIA
KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA
97KO UDA

✓ **OHO, DBH, IEE, BBB, UBI, LH**
☐ Kurtsoan utzitako gaien erredukzioak
☐ Arlo eta gai guztiak
☐ Banakako atentzioa

✓ **UNIBERTSITATE MAILA**
☐ Kalkulua eta kontabilitatea
☐ Estatistika
☐ Matematika

HASERA: UZTAILAK 1

16 01 20
Joan Iturralde, 5 **BEASAIN**



Karlos Ioldi Mujika
Ataundar preso
(Murtzia)

“Harro nago nere herriaz, batez ere sorterriaz Udal Batzarrean babesa eskaini didatelako; bereziki Aitorren jarrera aipatu nahi nuke. Goierriko bailara ere eskertu nahi nuke, zeren ongi asko baitakit, jende ugari kezkatuta eta arduratsu egon dela.”

Bada abesti bat, “Azien-dak, armak” kenduko dizkigutela dioena, eta behar bada ere “osasuna” gehituko nioke nik, baina abestiak dioten bezala ere, “ez gaude prest gure aitaren etxea saltzeko”. Goiko hitzak, berriki osasuneko arazoak eduki eta osatzen ari naizen honetan botatakoak dira. Oraingo honetan neri tokatu zait, lehen beste lagun batzuei tokatu zitzaizen bezala; batzuk kartzelan hilak, beste batzuk hiltzeko kale-ratuak. Hauxe da bai, amore ematen ez dugun presoek gerta dakiguken patua. Eta gogorra eta latza izan arren asunituta duguna. Izan ere, gurean ez dago literaturarentzat lekurik, gure bizitza, benetakoa da; honen lekuko, ia hogeit urte presondegian daramatena burkideen testigantza.

ONDOREN, osasunezko arazoak eduki (ebaketa bat barne), eta hilabete osoko kalbarioa kontatuko dizuet. Apirilaren hasieran, 3an hain zuzen ere, goizaldean sabelean min handia nuela esnatu nintzen; mina izugarria zenez, ziegako atea kolpatzen hasi nintzen sendagilea etor zedin. Sendagilea etorri eta honek segidan eritetxe batera eramateko agindua eman zuen. Eritetxean, odol analisiak egin eta gastroenteritis delakoa diagnostikatu, honela ekarri ninduten berriro preso-degira. Baina minak jarraitzen zuen... hurrengo eguneko arratsean, sendagileak begiratu eta sukarra nuela ohartzean, berriro eritetxera eramateko agindua eman zuen. Egonaldi honetan, aurreko egunean egindako frogaberberak egin ondoren, diagnostikoa aldatu zuten. Oraingoan “Adenitis mesenterikoa” zen, eta honetarako pilulez gain, dieta garbia agindu zidaten...

HORRELAXE eritetzeko bi egonaldiak, baina mina areagotzen zihoan. Gaua iristeari sekulako beldurra nion, mina amaigabea bihurtzen zitzaidalako. Eta gainera eritetxetik etorri eta lau egunetara edo, izter ondoan hazidura bat atera zitzaidan, mugitzean edo ibiltzean sekulako mi-

Eskerronez

na ematen zidana. Egunak, asteak aurrera zihoazen eta nere gorputza gero eta ahulagoa zegoen. Eta presondegiko sendagilearengana joaten nintzen aldira, “Adenitis” nuela eta ateratako hazidura berez joango zitzaidalako errepikatzen zidan. Baina nik banekien nere barnean txarra zen zerbait banuela...

MODU HONETAN hilabete bat pasata, goiz batean berriro eritetxera eraman ninduten, eta bertan ikusi ninduen sendagileak segidan aipatu zidan izter ondoko etena (hernia) izango nuela. Ondoren, nere “lagun” izango ziren eskuburdinekin eta dozenardi txakurrez inguratutik, frogabatzuk egitera eraman ninduten. Jada bazekiten izter ondoko etena nuela eta zirujanoak arratsaldean ebaketa egingo zidala aipatu zidan... Baina nire harri-durarako hara non esaten didaten bertan ezin didatela ebaketarik egin oherik ez zegoelako... Orduan Madrileko eritetxe batera eramateko agindua eman zuten.

GAUZAK HORRELA, egoera tamalgarri batean, berriro preso-degira ekarri ninduten. Egun horretako arratsean, trasteak hartu eta ebaketa egitera abiatu nintzen. Baina, azkenik Murtzia bertako zein eritetxean egin behar zidaten ebaketa erabaki arte-raino, beste lau ordu eduki ninduten destinoko ziega batean, zabor poltsa izango banintz bezalaxe. Txakurrek, egun osoan eskuburdinekin lotuta eduki ninduten, eta kirofanora sartzea ere deliberatu zuten... bastardo alehenak!... erabateko anestesiarekin, nora joango nintzen bada?

IZTER ONDOKO etenaz gain, peritonitis ere nuela konturatu ziren, eta ebaketa egin ondoren, berriro banuen beste ezusteko bat. Izan ere, bertan oherik ez eta beste eritetxe batera eraman ninduten. Bertan sartu eta segidan ongi “zaindutako” gela batean

sartu ninduten. Gela honetan, egun eta gau latzak bizi izan nintuen; ahul nengoen eta hezur hutsetan. Hamabigarren egunean, sendagilea inoiz baino goizago ikusi nuenean, zerbait arraroa gertatzen zela ohartu nintzen, eta hara ibiltzeko gai ere ez nintzela, non esaten didan alta emango didala eta preso-degira eramango nautela... Alferrikakoa izan zen oraindik osatu gabe nengoela esatea... Gorputza zutik ipini ezin nuela, dozenardi txakurrez inguratutik, nola edo hala erropak jatzera lortu nuen.

ESPERIENTZI gogorra izan dela ezin ukatu. Egun horietan zehar, gurekiko gorrotoa zer den ongi begiztatu dut, baina ederki asko ere ikusi dut, errespetoa digutela, errespetoa, herri bat dugulako ondoan, eta gutaz ahazten ez den erakunde bat. Harro nago nere herriaz, batez ere sorterriaz Udal Batzarrean babesa eskaini didatelako; bereziki Aitorren jarrera aipatu nahi nuke. Goierriko bailara ere eskertu nahi nuke, zeren ongi asko baitakit, jende ugari kezkatuta eta arduratsu egon dela. Harro nago etxekoan portae-raz, une guztian nere ondoan egon direlako. Esker mila ere kaletik babesa ematen diguten taldeari, bereziki Itsaso eta Joxeri.

ETA, ZER ESAN nere burkideetaz? Zer esan, hona iritsi eta babesa eta laguntza eman didaten lagun paregabeetaz?... Pentsa, nik pisurik ez eramatearren, ez erosketak, ez eta janariaren bandexa hartzen uzten ez didatenean... zer esan hauetaz? Edota gurekin dauden bi pinpilipauxak bixitatik itzultzean botatako mu-xu eta hitz goxoetaz, zer esan?... Hauek dira lagun eta burkideak. Presoen Kolektiboa osatzen dugunok, gure akats guztiekin, baina gauza guztien ginetik, laguntasuna, herriarekiko maitasuna eta beronen askatasuna erdietsi arte, borrokan jarraitzeko konpromezua agertzen dugu. Lagundu nauten guztiei ba, nere eskerrik beroenak.

ERREZETA



Sabina Lasa
Benta jatetxea
Otzaurre

MINGAINA SALTSAN

Osagaiak: mingaina, olioia, tipula, azenarioa, baratxuria, errezil sagarra eta ardo txuria.

Mingaina egosten jarri, bigundu arte eduki. Xerrak egin.

Saltsa egiteko, olioia, tipula, azenarioa, baratxuria eta errezil sagarra egosten jarri. Ondo nahastu dena. Egindakoan, purea egin. Ardo txuri piska bat ere bota saltsari.

Ondoren, mingaina arrautza-irinetan pasatu, fritu eta saltsatan jarri.



Iñaki Erauskin

Sasieta Mankomunitatea

Zaborren toxikotasuna gutxitzeko aholkuak:

Hondakinak gutxitzeaz gain, horien toxikotasuna murrizteko ohitura hartzea ere behar-beharrezkoa da:

- * Osagai arriskutsuak dituzten produktuak (pintura, kola, berniz, disolbatzaile, pestizida, automobiletako bateriak eta antzeko gaiak) zehazki behar duzuna bakarrik erabili.

- * Arreta handiz irakurri eta bete osagai arriskutsuak dituzten produktuen etiketatako argibideak.

- * Horrelako produktuak sobera, epea amaiturik edo erabiltzeko moduan ez badituzu, bete itzazu etxeko hondakin arriskutsuen gaikako antolamendu eta bilketari buruz Sasieta Mankomunitateak emandako gomendioak.

AHOLKUA

Zaborrak gutxitzeko aholku praktikoak

- * Ahal denean erabil itzazu berriz kargatzeko pila edo bateriak. Era horretan guk sortutako hondakinak gutxitu eta alde batera utziko ditugu erabili eta botatzeko pila batzuk izan ohi dituzten metal toxikoak.

- * Pila arrunt batek ematen duen argindarra etxeko entxufetik lortutakoa baino 450 aldiz garestiagoa da.

Produktuak berriro erabiltzeko aholku praktikoak:

Behin baino gehiago erabil daitezkeen produktu eta ontziak gomendagarriagoak dira "erabili eta botatzekoak" baino.

- * Utzi alde batera "erabili eta bota" egin ohi diren produktuak eta kontsumitu berriz kargatzekoak: boligrafoak, bateriak, metxeroak, etab.

- * Behin bakarrik erabil daitezkeen gairen bat nahitanahiez erosi behar baduzu, behar dituzunak bakarrik erosi.

- * Oihalezko mukizapi, ezpain-zapi, mahai-zapi, etab., garbi daitezkeelako, gomendagarriagoak dira paperezko mukizapi eta ezpain-zapiak baino.

- * Garbi daitezkeen kristal edo zeramikazko sardeska, koilara, edalontzi eta kati-luak gomendagarriagoak dira behin bakarrik erabil daitezkeen plastikozkoak baino.

- * Erabili eta botatzeko bizar-makinen ordez, erabil itzazu bizarra kentzeko makina elektrikoak edo bizar-xafla aldatu ohi zaien makinak.

- * Ez usatu erabili eta botatzeko izan ohi diren argazki-kamerarik. Erosi argazki-pelikulak eta ohiko kamera erabili.

- * Erabili zure lanean "berriz kargatutako" kartutxoak fotokopiagailu, fax-makina eta laser inprimagailuetan. Dirua ere aurrezten da horiekin.

- * Bila itzazu supermerkatuan itzultzeko ontzietan egon ohi diren produktuak.


- * Kontuan izan batzuentzat "zaborra" dena altxor prezia-tua izan daitekeela beste batzuentzat. Tresna elektrikoak, altzariak, lanabes zaharrak, argazki-ekipoa, arropa higatuak... bota ordez, saia zaitez erakunde humanitario, auzoko familia, lagunei, etab. eman edo saltzen.

OSKARBI
CIBERKIDUE

Mota guztietako eta adin guztietarako objektuak.

Kickers

E. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**


MUGICA 19

MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA


TOYOTA
GOIERRI AUTOAK

TOYOTA CARINA E
2.150.000 pezetatik

3 URTE GARANTIA
24 ORDU ASISTENTZIA

ORDIZIA
☎ 88 20 05 - 88 10 73

Hatzak mozteko arriskuan Joxe Goikoetxea preso ataundarra

Joxe Goikoetxea ataundar presoak, Dupuytrenen gaitza du. "Eskuetako gaitza da Dupuytren. Gaitz honen ondorioz eskuko hatzak okertzen joaten dira. Behatz txikitik hasi eta progresiboki okerragora joaten da eta beste hatzetara zabaltzen. Esku batetik bestera ere pasa daiteke gaitz hau eta Joxeren kasuan horrela gertatu da", esan digu Maixak, presoaren arrebak.


12 urte daramazki preso Goikoetxeak. "Sendagile baten eske 4-5 urtez ibili da. Urtetik urtera kartzelaz aldatzen zuten, ez zioten sendagilearentzako instantziarik onartzen eta onartuz gero jadanik beste kartzela batean zegoen eta berriro instantzia egiten hasi beharrean zegoen. Orduan gaitza aurreratzen joan zaio".

Azken urte t'erdi honetan Castellonen dago. Sendagilearentzat instantzia egin eta onartu egin zioten. Haseran kartzelako medikuak ikusi zuen eta gero Valentziako beste batek. "Haseran pronostiko garbirik ez zuten ematen baina hatz txikia moztu eta beste-

ak operatu egin behar zitzaiokiola esan zuten. Hori entzutean piska bat itxaron eta beste sendagileren batek ere ikusi egin behar zuela esan genuen", dio Maixak.

Eusko Jaurlaritzaren babesean kartzelaz-kartzela ibiltzen zen talde bat bazela jakin zuen familiak. Donostiako Gipuzkoako Ospitaleko medikua den Justo Astistraiarekin harremanetan jarri eta instantzia eskatu zuten. Ez zioten onartu, eta lagun bezala joan behar izan zuen ikustera. "Honek kabinan kristalez beste aldetik ikusi zuen. Ikutzerik ez zuen izan baina Dupuytrenen sindromea diagnostikatu zion. Hatz txikia mozteak ez zela beharrezko izango esan zuen, baina lehenbailehen operatu beharra zegoela, mozteko zorira iristen ari baitzen".

Astristainen iritzia jakinda, Ataungo Udal mailan lanean hasi ziren familiakoak, ebakuntza egin ahal izateko, lehenbailehen Martutenera ekarri zezaten. "Baina urtebete pasa da eta ez dugu ekarterik lortu. Denbora asko pasatu da



eta jada moztu egin behar-ko zaio behatz txikia. Ez da hatza bakarrik moztu, eskumuturretik hasita bi hatzen arteraino moztu baitute".

Ataungo Udaletxean alderdi politiko guztiek eta Senideak elkarteak osatutako Plataforma sortu zen, besteak beste, Joxe Martutenera ekar dezaten eskatzeko. "Ez dute guk nahi bezainbat pauso eman horretarako. Alkatea bisitara joan zen eta ikusi zuen zein zen Joxeren egoera eta horren ondoren, berriro hasi da idatzi batzuk bidaltzen hainbat instituzioetara. Herri mailan ere firma bilketa egin da, eta lanean ari gara giroa berotu eta ea lehenbailehen gure asmoa lortzen dugun", argitu du Maixak.

balio gabetzeko.

Gauzak honela, akusazio partikularrak Mikel Otegi berriz ere kartzelan sartzeko eskatu du, badaezpada neurri gisa. Akusazio partikularren esanetan, EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiak itsasondorria epaiketa eurreko egoeran uzten du eta orduan behin-behineko espetxean zegoen.

Akusazio partikularrak,

epaiketa Gipuzkoatik kanpoa egitea ere eskatu du, Gipuzkoan eginez gero, gauza bera gerta omen daitekeelako. Epaimahai inpartzial bat izateko eskubidea aldarrikatu du akusazio partikularrak.

Mikel Otegiren defentsak oraindik ez du aurkeztu errekurtsorik, eta ez du argudiatu hala egingo duen ere. Aste honetan zehar hainbat puntu argituko dira.

Mendien adierazgailua Murumendin

Beasaingo Udalak eta Aitzgorri Mendizale Elkarteak mendien adierazgailua jarri zuten Murumendin, ekainaren 22an. Estanislao Iturrriotzen ideia izan zen adierazgailuarena. Murumenditik ikusten diren mendien altuera eta bertara dagoen distantzia zehazten ditu adierazgailuak.

Dantza txapelketa

Iraultza Garmendia eta Iban Agote lezotarrek osatutako bikoteak irabazi zuen Segurako XXI. Dantza Solteko txapelketa. Jantzirik dotoreenaren saria, berriz, Sestako Gabriel Alonsok eta Oroitz Bilbok osatutako bikoterarentzat izan zen. XIX. mendearen bukaerako Erri-goitiko jantziak zituzten.

Ritor Begiristain

Futbolari olaberritarak Japongo Urawa Reds taldean jokatu du datorren denboraldian. Lehenengo mailan jokatu du Urawa Reds taldeak. Realean, Bartzelonan eta Deportivon jokatu du.

Loinatz txirrindulari taldea

Iberdrola-Loinatz txirrindulari taldeak Gipuzkoako Itzuli ona burutu du, jubenil mailan. Ander Perezek bi etapa irabazi ditu eta tarteko helmugan saria Mikel Gaztañagak irabazi du. Taldeko txapela ere Iberdrolarentzat izan da. Kadeteetan, Telleriarte lasterketan, 2. izan zen Xabier Goiburu. Afizionatuetan, Angel Acedok eta J.M. Eleizburuk 3. postuak eskuratu zituzten, Hernanin.

Mikel Otegi

Ekainaren 27an, EAEko Auzitegi Nagusiak forma akats bat aintzat hartuz ezeztatu egin du Mikel Otegi absolbitu zuen epaia. Errepikatu egin beharko da: Donostian egin beharko da eta beste herri juradu batekin. Zinpeko Epaimahaiak hartutako erabakia "ez arrazoitu" izana nahikoa izan du Auzitegi Nagusiko magistratuak epaia



Ekaitz Goikoetxea Euskal Herriko bertsolari txapeldun

Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketa irabazi zuen ekainaren 29an Mungian, Ekaitz Goikoetxea beasaindarrak, 15 urtetik 18ra bitartekoen mailan. Txikienean mailan irabazia zuen Eskolarteko txapela Ekaitzek; handienean berriz, beti aurre-aurrean ibili arren, azkenean aurtan jantzi du. *"Momentuz erronka bete dut. Beti punta-puntan ibili naiz Eskolarteko Txapelketan, baina ezin izan dut irabazi"*, dio Ekaitzek.

Igandeko finalean oso saio erregularra eta ona egin zuen beasaindarrak bertan bildutakoen esanetan. Beste urtebete gelditzen zaio Ekaitzi Eskolarteko txapelketan aritzeko. Aurrera jarraitzeko asmoa du, baina *"handien txapelketa hitz handia dira horiek"*. Argi Berri elkarteak bultzaturiko Ordiziako Bertso-eskolako ikaslea da Ekaitz. Zorionak!



Zugaitz Ayuso txapeldun

Opel-Irurok taldeko itsasondoarrak junior mailako Gipuzkoako Txirrindulari Itzulia irabazi du. Opel-Irurok talde osoa bikain ibili zen eta hainbat eta hainbat sari lortu zituzten, txapel nagusiaz gain: taldekakoa, mendikoa eta Dioni Galparsoro hirugarren sailkapen orokorrean.



ENBAren eskutik, Esne topaketak 1997


ENBA nekazal sindikatuak antolaturik, esnezale guztientzat batzarrak antolatu ditu. Goierri dagokiona, Lazkao-mendiko baserritarren elkartearen izango da, uztailaren 7an, gaueko 9.30etan.

1998. urtearen hasierarekin batera esnearen kalitate neurri berriak jarriko dira martxan eta aldi berean, Europako merkatuaren araudi berria (OCM) negoziatuko da. Gauzak honela, gaur egun indarrean dagoen esne kuota sistemak aurrera jarraituko duen ala ez ikusteko dago, ENBATik adierazi digutenez.

Era honetan, datorren urtetik aurrera, European markatutako kalitate neurriak betetzen ez duen esnea ezingo da pertsonaren kontsumorako bideratu eta honenbestez, ez da jasoko. *"Puntu honek adierazten digu kalitateak gero eta eragin handiagoa izango duela baserritarrak jasoko duen prezioan"*, dio nekazal sindikatuak.

Horrezaz gain, esne kuoten sistema ere zalantzan dago, kuotak jarraituko duen ala ez datorren urtean hasiko diren negoziazioetan argituko baita. Horrexegatik hain zuzen, esnearen kalitateak eta kuota sistemaren inguruan izango diren negoziazioei buruz hitzegiteko eta azalpenak emateko ENBAk Esne Topaketak antolatu ditu Gipuzkoako 8 herri-tan.

ENBATik jakitera eman digutenez, topaketa hauek kalitate eta kuota sistemaren inguruan izango diren negoziazioei buruz informazioa emateaz gain, bertara azaltzen diren baserritar guztiek Analitica Veterinariako teknikoak izango dituzte esne kalitatearen inguruko arazoen berri emateko, zalantzak argitzeko eta hartu beharreko neurriak zehazteko.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 88 79 72
Senpere. 7
BEASAIN

SANTI AUZMENDI JOSTUN LAZKAOTARRAREKIN BERRIKETAN

"Ezkontza batera korbatarik gabe joatea astakeria da"

Lazkaoko Zubierrekako Eguzki-alde etxean jaio zen Santi Auzmendi jostuna. 57 urte ditu. Bezeroen ohiturak aldatu egin dira eta jostun lana utzi egin du; neurrira egin beharrean, Italiatik ekarritako trajeak moldatutzen ditu. Euskal Herrian jostun lanbidea ia desagertuta dagoela esan digu. Kontu hauek eta gehiago kontatu dizkigu.

- Nolatan jostun?
- Ustegabeko zerbait izan zen. Tornuan ibili nintzen lanean urtebetez, beti zikin-duta, baina lan zikinik ez zitzaidan gustatzen. Lan garbiena hauxe ikusi nuen eta horrela hasi nintzen, piska bat inkonszienteki. Jostungintza hartu nuen eta horrelaxe jarraitu dut.
- Familian aurretik ba al zen inor jostun?
- Inortxo ere ez.
- Nondik etorri zitzaizun bada ideia?
- Lazkaon lagun batzuk jostundegi bat jarri zuten eta beraiekin hasi nintzen. Han ikasi nuen josten. 19 urterekin Bartzelonara joan nintzen ebaketa ikastera, akademi batera. Trajea egiten, ebakitzetik hasi eta josteraino, han ikasi nuen. Perfekzionatzen erakustera, Paristik etortzen zen irakasle bat, astean pare bat aldiz.



Modan oso sartuta nago eta datorrena gustatzen zait. Oso aldakorra izan behar da, bestela haria galtzen da.

- Traje bat egiterakoan unean zailena zer da?
- Zailena da gustoa interpretatu eta gero ebakitzera hori ondo irudikatzea. Trajeak noski, modernoa izan behar du. Bakoitzaren iza-kerarekin batera etorri behar da trajea. Nire inguruko jostun gehienek patroiak egiten zituzten, nik patroia sekula ez nuen moztu. Neurriak hartu eta nik zuzenean oihalean plasmazen nuen, tizarekin markatuz. Beraz aldiro, ezberdinak ateratzen ziren trajeak. Momentuko moda ere kontutan hartzen nuen. Ingalaterrako sisa txikiak, Parisko sisa zabalagoak, Italiako korrontea zenean bizkarrak borobilagoak...
- Zure lanbidea aldatu al da?
- Zentzu batean aldatu da. Lehen oihaletik hasten nuen trajea, eta orain trajeetatik. Bezero bat etortzen da, trajea probatu eta traje hura bere erara moldatzen dut.

Nik neronik trajeak urtean pare bat bakarrik egiten ditut, lanbidea ez ahazteko. Neurrira egitera ez naiz gehiegi dedikatzen.

- Neurrira egindako jantziak gutxiago eskatzen al ditu bezeroak?
- Geroz eta gutxiago eskatzen ditu. Momentu batean gainera, jendea konparaketak egiten hasi zen, eta egindako trajeak nahiago izaten ditu, hobeto bukatuta etortzen direlako. Jakina, makinak hobeto bukatzen dute,

jendearen gustoa egitea oso zaila zela ikusten bainuen. Trajeak gehienbat Italiatik ekartzen ditut. Tekniko eta diseinatzaile gehienak han daude. Eta trajeak teknikoki oso ondo eginda etortzen dira. Jendeak alde batetik arrazoi faltarik ez zuen. Eskuz eginda ez dira hain ide-alak gelditzen. Orain dela 10 urte konfektzioa asko hobetu zen, puntada guztiak makinaz egiten dituzte, eta oso makina onak daude. Jendea pozik sentitzen da. Italian makinaria handia daukate, hemen ezin dut horrelako inbertsiorik egin.

- Jostun tradizioa bukatzen ari al da?
- Milanen jostun tradizio guztia desagertua dago, ez dago jostunik. Napolesen gelditzen da jostun tradizio piska bat. Euskal Herrian ere ia erabat desagertu da. Artisau ohitura erabat galduta dago. Jostun lana ospea galduta dagoela ere esango nuke. Jendeak ez du itxaron nahi. Traje bat egiteko 15-20 bat egun behar dira eta jendeak probatu, hartu eta berehala eraman nahi du.

"Jostun lana ospea galduta dago Euskal Herrian"

eskuz baino perfektuagoak egiten ditu. Orduan egindakoak saltzen hasi nintzen. Tailerreko kosteak ere handiak izaten ziren eskuz eginez gero. Jendearen erara moldatu beharra izan dut. Utzi egin nuen jostun lana,

- Zein moda daukagu?
- 60. hamarkada ingurukoa. Oso traje estuak datoz. Bizkar estuak, txaleko altu xamarrak, amerikana nahiko estuak... Prakak ere izter aldean nahiko estuak, pintzarik gabe... Alkandora lepo

luze eta zabalak, kanpotik atereak. Garai erromantikoa izan zen hura.

- Zuk zein korrante duzu gustokoen?

- Modan oso sartuta nago eta datorrena gustatzen zait. Oso aldakorra izan behar da, bestela haria galtzen da. Nik moda oso asimilatuta daukat, eta dena gustatzen zait. Oso aldakorra naiz. Gainera horrela izan behar da, moda estatiko bat ez litzateke moda izango, artistak ere aspertu egingo lirateke. Artean dena aldatzen da, eta modan ere bai. Diseinatzaileak artista handiak dira.

- Italia aldera joateko aukerarik eta asmorik izan al duzu sekula?

- Aukera izan nuen, baina aukera zaila da. Asko kostatzen zait ezagutu gabeko leku batean kokatzea. Nahiko gogorra izango litzateke eta beti errazera jo dut. Lehenengo Lazkaon ireki nuen denda, gero Hernanin eta ondoren Donostian. Donostian 28 urtez daukat dena.

- Jantzkeran Goierritik Donostiara alderik ba al dago?

- Herrietara moda gehiago saltzen dut, hirira baino. Hiri hau oso hila da, ez dauka bizitasunik. Herrietan oraindik ere jendea biziagoa da, horrenbeste konplejorik gabea, janzteko eran behintzat.

- Donostiak beti izan du bada ondo janzteko fama.

- Hiriaren erdialde honetan, behintzat, jendea zahartu egin da. Ez dago bizimodurik. Hiriari bizia herriek ematen die, eta herrietakoengatik ez balitz, ez genioke eutsiko. Goierriko jendea ez da hainbeste etortzen. Baina trajea nork janzten du Goierri? Kanpora ateratzen denak edo ezkontza bat duenak. Azpeitia eta Azkoitiak adibidez, tradizio handiagoa izan du dotorea go janzten.

- Trajea nork erosten du batez ere?

- Kontsumoa gazteengan dago, nahiz eta kontsumo hori zahartzen ari den. Lehen 30 urte inguruan zegoen kontsumoa, gaur egun 40 urte inguruan. 20-50 urte bitarteko bezeroa daukat, batez ere.

- Ondo janzteko beharrezkoa al da trajea eta korbata?

- Behar beharrezkoa ez. Korbata beharbada beharrezkoa da konpromiso bat dagoenerako. Adibidez, niretzat, ezkontza batera korbatarik gabe joatea astakeria da. Zeremonia delako eta festa inguruko gauza bat delako. Ezberdindu egin behar dira momentuak, festa denean festa eta ezkontza denean ezkontza. Saltzaile bat ere, korbatarekin joanez gero, onartuagoa izango da. Ondo ere jantzi daiteke



"Zahartzeari beldur"

Jostunaz gain, korrikalaria ere bada Santi Auzmendi. "Zahartzeari beldurra diot, eta horregatik egiten dut kirola". Bere adinean, Espainiako errekorra dauka, pistan. Europako markatik ere segundu bakarrera gelditu zen iaz. "Pistan 400, 800 eta 1.500 metrotan ibiltzen naiz. Lasterketa herrikoietan ere parte hartzen dut".

Kirola egiteko ere "ondo jantzita joanez gero, hobeto", esan digu lazkaotarrak. Inoiz kirol jantzirik egitea burutik pasatu al zaion galdetu diogu: "sekula ez. Erosi eta kitto".

sport. Baina trajea dena kolore batekoa denez, estetika hobea ematen du, errazagoa da janzteko eta hobeto joateko. Sport eran ondo jantzea zailagoa da, konbinaketa gehiago egin behar baitira.

- Gogoratzen al zara josi zenuen lehen jantzia zein izan zen?


- Ez naiz gogoratzen. Baina badakit, jendeak egin nizekien lehen trajeak gordeta dituela, orain dela 40 bat urtekoak.

- Familian jarraitzailerik ba al duzu?

- Jostun bezala ez, baina dendan aritzen dira. Jostun erromantikoa ni bakarrik naiz familian. Artista mundua arriskutsua da, ekonomia ere sartuta baitago ofizio honetan.

- Aurrera begira zein asmo duzu?

- Emakumeen eta bakaroen denda handitzen ari naiz orain. Hementxe jarraituko dut. Bizi kalitatea asko gustatzen zait. 8 ordu lan egin eta gero aisialdia asko estimatzen dut. Lanerako eta ondo bizitzeko denbora izan behar da.



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN



Inprimategia

EGUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12 **ORDIZIA**

Milagrosa ikastetxearen "behartutako" agurra

Ikasturtearen amaierarekin batera, betirako itxi ditu ateak Ordiziako Milagrosa ikastetxeak. "Behartuta" hartu dute erabakia, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak murriztu baitizkie. "Diru murrizketa horren ondorioz ikastetxeak aurrera egiteko irtenbiderik ez genuen aurkitzen. Garbi zegoena zen, gure bidetik jarraituz gero, paretaren aurka jotzea litzatekeela", argitu digu Mikel Etxarri Milagrosako zuzendariak. Diru murrizketa ikasle kopuruaren jaitsieragatik etorri da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzeak ere kalte egin diela uste du Maria Rosario Iruin irakasleak. Aurten 12 urterarteko hezkuntza eskaini du Milagrosak, hortik aurrerakoak, Beasaingo La Salle-San Josera joan dira. "Bigarren Hezkuntza kentzearekin batera, subentzioak ere jaitsi egin dira. Administrazioak ikastetxe handiagoak indartu nahi ditu, eta txikiak itxi". Horrelako eskola txikiei gelditzen zaien irtenbide bakarra adskripzioarena da. "Gu horren atzetik genbiltzan, Beasaingo La Salle-San Josearekin egitekotan, baina adskripzioa egiteko irizpideak ez zituzten kale-ratu".

Aurtengo ikasturtean 75 ikasle aritu dira, 9 irakasle-
ren ardurapean. Milagrosa ikastetxea ixtearen ondorioz, Ordizian bi ikastetxe gelditu dira: Urdaneta-Oianguren ikastetxea (publikoa) eta Jakintza ikastola. Milagrosako ikasle gehienak Jakintza ikastolara joango dira: % 60; Urdanetara % 20a eta Beasaingo



Milagrosa ikastetxeko ikasle eta irakasleek ateratako azken argazkia.

La Salle-San Josera beste % 20a. 9 irakasleen etorkizuna ezberdina da. Hiruk irakas-kuntza uztea erabaki dute. Gainerakoak ikastetxe pribatu-
en lan-poltsan sartu dira. "Bik dagoeneko lortu dute lana, Beasaingo La Salle-San Josen eta Tolosa-ko Eskolapioetan. Beste, 4 zain daude. Dena den, ziurtatuta dago, Ikastolan 3 irakasle sartuko direla, gure ikasleak hara joatean, Administrazioak 3 ikasgela berri ireki baitizkie. Administrazioak Milagrosako irakasleak hartzeko baldintza jarri die Ikastolari. La Sallen ere beste irakasle bat hartzeko aukera dago".

Jaitsiera 80tik aurrera

Iazko ikasturtean 120 ikasle izan zituzten; aurten 75. Baina jaitsierarik nabarmenena 80. urtean hasi omen zen. "Urte hura izan zen eskolaren momenturik gogorrena. Mojek joatea erabaki zuten, 2 bakarrik gelditu ziren. Ikasle asko geneuzkan momentu hartan, baina hor hasi zen jaisten. Ixtera zihonanaren zurrumurrua zabaldu zen. Guraso askok konfiantza galdu zuten eta jende asko ez zen matrikulatu

gure eskolan. Orain berriro ere gorako joera hasita zegoen baina ez digu denborarik eman".

Mojen joateaz gain, inguruak ere mina egin diela aitortu digute Milagrosako irakasleek. "Gure eskolara jendea erakartzea ez zen oso erraza, inguruko giroa kontrakoa baitzen. Gurasoei Milagrosa ikastetxean euren haurrak matrikulatzea oso zaila egiten zitzaien. Ikastetxe honetan euskara gehiegirik ez zela ematen esaten zen, eta hori ez da egia, euskararen aldeko lan handia egin da Milagrosan eta oso giro euskalduna zegoen. Azkeneko urteetan ez da A eredurik egon. Horrezaz gain, errezatzen eta josten bakarrik erakusten zela esaten zen. Herrian jende gehienak ez zekien Milagrosan zer motatako lana egiten zen".

Alde positiboa

Mojen alde egiteak dena den, alde positiborik ere izan omen zuen zuzendariaren ustez. "Harrezkero gurasoen esku egon da ikastetxearen ardura". Beste alde on bat ere bai: "gelak ere

haur gehiegirik gabe geneuzkan, familia bat bezala ginen. Ikastetxe txikietan hori gertatzen da, hurbiltasuna handiagoa da, harreman estuagoak eta berotasun gehiago. Orain asko aipatzen dira herri txikietako ikastetxeak, eta ikastetxe honen nortasuna nolabait horrelakoa zen. Guretzat, haurrentzat eta gurasoentzat hori oso positiboa izan da". Lerro hauetatik eskerrik beroenak eman nahi dizkie eurengan konfiantza agertu duten gurasoei.

Lan integratzailea

Milagrosa ikastetxea sortu zeneko datu zehatzik ez dago. Mojak Ordiziara orain dela ia 100 urte etorri ziren eta Erresidentzian lanean hasi ziren. 1922an, eskolaurreko gela ireki zuten. Ofizialki Milagrosa ikastetxea 1949an ireki zen. Azken urteetako Milagrosak aurreko urtekoekin zerikusirik ez duela aitortu dute gaur egungo irakasleek. "Gaur egun Milagrosak betetzen zuen papera oso garrantzitsua eta ona zen herrian. Alde batetik, emaitza akademikoak oso onak lortzen ziren. Bestaldetik, lan sozial handia egin da. Ikastetxe honetan integratzen ziren marjinalak eta herriko seme nabarmenenetakoak. Ijituak eta kuartelekoek inoiz ez dute arazorik izan eta beste umeekin oso integratuta zeuden".

Agur ekitaldia

Ekainaren 21ean agur ekitaldia egin zen. Gurasoak, ikasleak, irakasleak eta ikasle ohiak bildu ziren bertan. Meza eta luntxa izan zuten "agur triste" honetarako.

Uztailaren 1ean martxan jarri den autobus zerbitzu berriaren uztailleko ordutegiak dira honakoak. Abuztuan nabarmen murriztuko da zerbitzua. Dena den, ordutegi hauek behin-behinekoak dira, froga bezala. Behin-betikoak irailetik aurrera zehaztuko dira.

ZALDIBIA - ORDIZIA - BERSAIN - IDIAZABAL	
Astelehenetik ostiralera	Zaldibiatik: 7:30, 8:00*, 8:30, 9:30, 10:30, 11:30, 12:30, 3:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30 Idiazabaldik: 7:00, 7:30*, 8:00, 8:30*, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00. * asteazkenetan
Larunbatetan	Zaldibiatik: 8:30, 10:30, 12:30, 17:30, 19:30. Idiazabaldik: 9:30, 11:30, 13:30, 16:30, 18:30, 21:30.
Igande eta jaiegunetan	Zaldibiatik: 8:30, 10:30, 17:30, 19:30, 22:05. Idiazabaldik: 9:30, 11:30, 16:30, 18:30, 21:30.

ATAUN-ORDIZIA	
Astelehenetik ostiralera	Ataundik: 7:00*, 8:00**, 10:00**, 11:00*, 12:00**, 14:00*, 15:00**, 16:30*, 18:00**, 19:00**, 20:45*. Ordiziatik: 7:40**, 9:30**, 10:40**, 11:40**, 13:40*, 14:40**, 16:10*, 17:30**, 18:40**, 19:50*.
Larunbatetan	Ataundik: 9:30*, 11:30**, 14:00*, 17:00** Ordiziatik: 10:55**, 12:55*, 15:55**, 18:25* * Ataun Kaxetatik edo Kaxetaraino ** Ataun San Gregoriotik edo San Gregorioraino
Igande eta jaiegunetan	Ataundik: 9:30*, 14:30*, 17:00*, 19:00*. Ordiziatik: 10:55*, 15:25*, 18:25*, 21:25*

LAZKAO-BERSAIN-ORDIZIA	
Astelehenetik ostiralera	Ordiziatik: 7:00, 8:15, 9:15, 10:15, 11:45, 15:30, 17:30, 18:30, 19:30. Lazkaotik: 8:30, 9:30, 10:30, 12:00, 15:45, 17:45, 18:45, 19:45.
Larunbat igande eta jaiegunetan	Ordiziatik: 10:30, 12:30, 15:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30. Lazkaotik: 11:00, 13:00, 16:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00.

ZEGAMA-ORDIZIA	
Astelehenetik ostiralera	Zegamatik: 6:45, 8:00, 10:00, 13:00, 15:00, 17:00, 18:15, 19:30. Ordiziatik: 7:30, 9:30, 11:30, 13:30, 15:30, 17:45, 19:45, 20:15.
Larunbatetan	Zegamatik: 10:30, 12:30, 15:30, 18:00. Ordiziatik: 10:00, 12:00, 14:30, 17:30.
Igande eta jaiegunetan	Zegamatik: 10:30, 15:00, 18:00, 21:00. Ordiziatik: 10:00, 14:30, 17:30, 19:30.

LEGORRETA-ITSASONDO-ORDIZIA-BERSAIN-ORMAIZTEGI-ZUMARRAGAKO OSPITALEA	
Egunero	
Legorretatik: 8:15, 11:00, 14:30, 16:00. Zumarragako Ospitaletik: 10:00, 12:15, 15:15, 17:15.	

BEASAIN

Herriko musikarien disko-konpaktua prest

Loinatz 97 ospakizunen barruan, uztailen zehar argitaratuko da herriko musika taldeek grabaturiko disko-konpaktua. 15 abesti jasoko ditu, guztiak ere oso ezagunak herri mailan. Grabaketa Usurbe Antzokian burutu da Pello Irizarren ardurapean, eta Lagin disketeak egingo du argitalpena. Beraz, produktu erabat beasaindarra burutu da; bertako talde, abesti, teknikari eta disketearekin.

Zazpi musika taldek hartu dute parte, guztira 15 kantu edo pieza bilduz. Musika Eskolako **Musika Bandak** bi abesti grabatu ditu: Beasain Festivo eta Alkate Soinua. **Loinatz abesbatzak**, hiru: Loinazko San Martinen ereserkia, Beasain Kirol Taldearen Mar-txa eta Muruko Mari. **Txistularien Udal Bandak** beste bi: Loinazko San Martinen ereserkiak eta Txanbo. **Akordeoi Orkestrak** ere bi lan ditu: Loinazko Amari eta Agur Loinazko Ama. **Koskola txarangak**: Beasain Jaietan eta Martin Irizarren fandangoa eta arinarina. **Arantxa eta Koldo Iparragirre** trikitilariak: Murumendiko Mari eta Bertsoak dantzan piezak. Eta azkenik, Musika Eskolako **Trikitixa taldeak** Beasain dantzan obra grabatu du.

Iñaki Erauskin Loinatz 97 batzordeko partaidearen

usten, "herriko talde esanguratsu gehienak sartu dira, estilo ugari jorratuz. Agian pop-rock inguruko zerbait falta liteke, baina momentuz ez da Beasainen estilo hori lantzen duen talde garrantzitsurik, ez behintzat sartu direnen pareko historia duenik".

CD-a banatu egingo da, ez saldu. Hori bai, kantitate sinboliko bat eskatuko da, CD baten grabaketak dakartzan gastuei neurri batean aurre egiteko.

Helburuei dagokienean Erauskinentzat, "Loinatz 97ko ekitaldi guztiek helburu bikoitza dute. Alde bate-tik, San Martinen figura ezagutaraztea; eta bestetik, Beasain dinamizatzea, gero-ra jarraitasuna izan dezaketen ekintzak bideratuz. Akulu lana egin nahi genuke, kultur ekintza berri hauek luzarorako jarraipena izan dezaten".

Bestalde, Loinatz 97ren hurrengo ekitaldi nagusi-nak, udazkenean iritsiko direnak, aurreratzeko moduan gara. Martin Mendizabal frantziskotarrak San Martini buruz idatzi duen liburua argitaratuko da, eta hurrei zuzendutako ospakizun handi bat antolatuko da, as-teburu oso bat hartuz.

Udal Biblioteka

Uda partean, Udal Biblioteka bere ohizko ordutegia aldatu egingo du. Honela,

irailaren 16rarte, goizez bakarrik irekiko da, 9.00etatik 1.30etara.

Tailerak

Datorren ikasturtean Arte Plastikotarako zentrua irekiko da Urbieta eraikuntzan (garai batean hiltegia zena-an). Bertan, zenbait tailer kokatu nahi dira, dagoeneko martxan diren irratizale eta antzerki taldeekin batera. Lau tailerretan pentsatu da. Iaztik mantentzen diren zeramika eta pintura tailerra, eta beste bi berriak, argazkigintza eta bideoa. Tailer hauekin, urrian hasi nahi da. Udalak oinarritzko ekipaia eta lokalak jarriko ditu. Eta ondoren, tailer bakoitza elkarte modura antolatu nahi da, hortik aurrerako

gestioak bere kabuz egin ditzan.

Tailer bakoitza antolatze-ko taldeak eraturik eta lanean dira dagoeneko. Beraz, tailerren batean partehartze-ko interesa duenak, Kultur Sailera jo dezake informazio eske: 88 50 51.

Futbito txapelketa

Ekainean zehar jokatu den Ezkiaga Auzoko II. Futbito Txapelketa bukatu da. Finalak pasa den igandean jokatu ziren, azoko festekin batera. Talde garailea: Systicios River, Strakovichi 5-3 irabazi ondoren. Zuzelzu 3. izan zen eta Varios Bremen 4.. Zuzelzu taldea Irurakoa da, beste hirurak, beasaindarrak.

Aitor Arrue



Kutxa-txartela euskaraz erabiltzeagatik Olaia Lizarralde Aranburuk, Josu Mendia Izagirrek eta Fko. Jabier Oiarbide Etxezarretak irratikasete bana jaso dute. Kutxak eta Udalak euskararen erabilpena bultzatzeko hitzarmenaren barruan kokatu behar da zozketa hau.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZKO TRATAMENDUA**

- LUNBAGO, ZIATKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

R.P.S. 213/97

Eskatu ordue: ☎ (929) 45 20 53 - 88 92 22
Oriamendi, 3 - 2. ezk. - BEASAIN

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN

IDIAZABAL

Eguraldiak bestelakoa erakutsi digun arren uda iritsi da Idiazabala. Herria behintzat udako itxura hartzen ari da eta hainbat zerbitzutan aldaketak izan dira:

Liburutegia, uztailaren goizetan egongo da zabalik eta abuztuaren itxita. **Kultur Etxea** uztailaren 11tik aurrera itxita egongo da. **Kirroldegia** goizetan 10etatik 13.00etara eta arratsaldean 18.30etatik 20.30etara zabalduko dute.

Zirika Irratiak ere udako atseden hartu du, eta datorren urrira arte ez du irratia gehiago egingo. Herriko hainbat dendek ere udako ordutegia hartu dute.

Zabor bilketa "garbiagoa"

Udalak zabor bilketarako jarritako dauden egunak errespetatzeko eskaria egin du. Asitehen, astearte, ostegun eta

Udagihoan



Ursuarango bidea

Ursuarango kruze parean hilabeteak eman ditu itxita Etxegaratera bideko karril batek. Denbora horretan Ursuarango kruzea eta ondoren dagoen aldapan konponketak egiten ari ziren. Orain itxura berria du Ursuarango kruzeak eta seinalizazioa berria jarri dute.

larunbatetan pasatzen da bilketa egiten duen kamioia. Udalak zabor poltsak egun horietan, kamioia pasatu aurretik, edo aurreko gauean ateratzeko eskatu du.

Bestalde, Sasietak martxan jarritako kartoien bilke-

ta herrira zabaldu nahian dabil Udalak. Batez ere dendarietara eskaini nahi die zerbitzu hori. Bilketa noiz eta nola egiten den jakin edo bestelako xehetasunak jakin nahi dituenak udaletxera jo dezake.

Pilotalekuko arduraduna

Pilotalekuko arduraduna aukeratzeko epea luzatu egin du Udalak. Aurreko deialdian izena inork eman ez zuenez, izena emateko epea uztailaren 15a bitartean luzatzea erabaki dute.

Aurreko deialdiko baldintza eta oinarri berak bete beharko ditu eskatzaileak, dena dela aldaketa bat bada: eskatzaileak ez du zertan Idiazabalgoa izan behar. Deialdia beraz inguruko herrietako jendeari zabaltzea erabaki du Udalak.

Praktikante berria

Azken urteotan herrian lan hori bete duen Idoia Larrañagak ekainean alde egin beharra izan zuen. Haren ordez Idiazabalen bizi den Arantxa Etxeberria ari da orain praktikante lanetan.

Xabier Urteaga

LEGORRETA

Pulit-Zer? elkartearen argazki zahar eske

Legorretan egindako edo herriarekin zerikusirik duten argazki zaharrak bilatu eta bildu nahi ditu Pulit-Zer? argazkilari elkarteak. Horieta interesgarrienak berriak eta handitzeaz gain, artxibo orokor bat sortu eta urte bukieran egingo den erakusketara antolatu nahi da. Artxibo orokor hori digitalizatua izango denez, argazkiak egoera txarrean egon arren, Pulit-Zer? argazki elkarteak berreskuratze lana egingo du, ahalik eta egoera onenean utziz.

Argazkiak jasoko diren tokiak honako hauek izango dira: **Udal Liburutegia**, 17:00etatik 20:00etara, Jexux Mari Arizabalagari

eman. **Udaletxean** 9:00etatik 12:00etara, Jexux Mari Arizabalagari eman. **Aldaietan Pentsiodun eta Jubilatuen elkarteak**, 12:00etatik 13:00etara, Manolo Uranga eta Juanxo Labaien egongo dira argazkiak jasotzen. Edo bestela, Pulit-Zer? argazki elkarteak kide diren Jesus M. Uranga, Iñaki Nazabal, Joxe Mari Lasa 'Errota' edo Antton Altunari eman diezazkiezue.

Pelota partiduak

Bilkoineko pelota txapelketako finalen emaitzak: B mailan, I.Nazabal-H.Eskitxabelek 22 I. Belamendia-A.Argiñarenak 17. A mailan, J.M. Garmendia-J. Larraurik 22 Unai-Eneko 21.

'Insausti harria' antolakuntza batzordearen oharra


Pasa diren herriko jaietan antolatu genuen txapelketa dela eta batzorde honek eskerrak eman nahi izan zizkien publikoki txapelketa hura aurrera ateratzen lagundu zieten deneri. Asmo horrekin El Diario Vasco egunkariak herri honetan duen ordezkariarengana joan ginen gutun bat ateratzeko asmotan. Ordezkariek honek baieztatu eman zigun eta herriko kronikan aterako zuela hitz eman zigun. Bi hilabete luze pasa direnez eta egunkari horretan ezer atera ez dutenez, GOIERRI-TARRAK eskaintzen digun aukera hau aprobetxatu nahi genuke. Hala eta guztiz ere, El Diario Vasco egunkariak berak jakingo du zergatik publikatu

ez duen kronika hura zeren batzorde honek ez du oraindik inongo azalpenik jaso. Beraz, gure asmoak bete nahian eskerrik beroenak honako hauei eta beste batzordeari: Calcinor, Eredu, Ederfil, Ontza, Uralar-Goimerrri, Estanko edaritegia, Nati arraindegia, Lasa botika, Kuxa, Jesus eta J.Ramon harategiak, Erosle, Bilkoin eta Aldaieta elkarteak, Inaxi, Olaso, Arantxa, Guadalupe, Pikondo eta Insausti tabernak, Talleres Arizpe, I. Garmendia, Ibai-Alde karrozategia, Lasa egurrak, Zabalna kaldereria, Aulia sagardotegia, Arregi okindegia, M.Jose eta Josepi janaridendak, Sagastume iturgintza, Udalak eta Eusko Jaurlaritza.

*Batzordeko lehendakaria,
J.L. Soroiz*

ATAUN

Santaixelak Aian


Aiako Aterpea inauguratu da Santaixelatan.

Festa giroan gaude bete-be-tean herrian: Sanjoanetako suei erabat itzaltzeko betarik eman gabe, Aia auzoko jaiak iritsi zaizkigu ate joka. Aiarrak eta bertaraino hurbildutako guztiak Santaixelak ospatzen ari dira joan zen asteazkenetik. Orain artekoak norbait asetu gabe utzi badu, lasai, astebururako prestatuta dagoen ekin-tza multzoa ez baita nolanahikoa. Hona hemen:

Ostiralean (uztailak 4), gaueko 9.30etan, auzo afaria izango da trikitilari eta bertsolarien girotuta; eta ondoren, 12etatik aurrera, Drindots taldeak hartuko du txanda, goizalderarte hartu ere.

Larunbatean (uztailak 5) haurrak izango ditugu protagonista nagusienak, haiei eskainitako eguna baita. Horregatik, 5etan **ume jolasak** izango dira, trikitilarien alaiturik. 7 t'erdietan, berri-ri, zahartxeagoi zuzen-duta, jakina, **sagardo probaketa** egongo da (sardina... lagun direla); eta 12etatik aurrera Etzakit taldearekin goizalderarteko martxa. Gainera, arratsalde-

an zehar zurezko eskulanen erakusketa izango da (Jaso taldearen eskutik).

Igandeak (uztailak 6), jaietako azken egunak, ondorengo ekintza hauetan parte hartzeko gonbitea luzatzen digu: 10.30etan **meza nagusia** eta ondoren Eate abesbatzaren emanaldia elizan bertan; 12.39etan **erlojupeko txirrindulari** proba, Kaxeta-Aia bitartean. Arratsalde partean, 5.30etan, **XII. Dantzari Txikien Txapelketa** muga-tua. Gero, **herri kirolak**: Beasain eta Olaberria aurrez aurre. Gauean eta goizalderarte luzatzeko asmoz,

Oto festa astean izandako ekintzen edo txapelketen emaitzen berri:

Auzoetako III. Frontenis txapelketako finalean: Asurabarrak 13- Galparsorok 22

Auzoetako I. Badminton txapelketako finalean (3. adinekoen artean): Aranak 2- Imazek 0

Zelaiko I. Badminton txapelketako finalean (3. adinekoen artean): Dorronsorok 2- Zurutzak 0

Zelaiko I. Badminton txapelketako finalean: Imaz IIak 2- Auzmendi Iak 0

Ataungo IV. Futbito txapelketan: 3. eta 4. postuetarako, Gehitxon 8- Sex Tlemili 5; finalean, Earra!!! Hi 3- Artzan Erre Nuebea 1

Zorionak denoi!!!

Zabale anaiak trikitixa soinu- nuz festei amaiera bikaina ematen saiatuko dira.

Autobus zerbitzu berria

Uztailak 1 geroztik, kolore eta izen berri bateko autobusak ikusten ari gara herri- tik zehar: Goierrialdea Bus konpainiakoak dira, hain zuzen ere. Konpainia honek, Foru Aldundiaren kontzesio bidez, Goierri osorako autobus zerbitzuaren zeregina bereganatu du. 4 linea nagusi dauzka eta horietako bat, hain justu, Ataun-Lazkao-Beasain-Ordizia da.

Zerbitzu aldetik, autobusak sarriago izango ditugu hemendik aurrera: orokorrean, astelehenetik ostiralera, 11 aldiz irtengo da herri- tik autobuseren bat (horietatik 4 Kaxetatik eta gainerakoak San Gregoriotik), goizeko 7.00etan lehena eta gaueko 20.45etan azkenekoa. Herrira iritsiko direnak ere, jakina, beste hainbeste izango dira: Ordiziatik abiatuta, lehenak 7.40ean eta azkenekoak, aldiz, 21.20ean hartuko du herri- rako bidea (horietatik, 4

iritsiko dira Kaxetaraino eta besteak San Gregorioraino).

Larunbatetan, 4 aldiz irtengo dira herri- tik (2 Kaxetatik): 9.30etan lehena eta 17.00etan azkenekoa. Herri- ratzeko ere beste horrenbeste izango ditugu: Ordiziatik 10.55ean abiatuko dena lehena eta 18.25ean irtengo dena azkenekoa.

Bukatzeko, igande eta jaiegunetan 4 autobus irtet- ra-aldi egongo dira, denak Kaxetatik: 9.30etan lehena eta 19.00etan azkenekoa. Etortzeko, beste 4: Ordiziatik 10.55ean irtengo da lehena eta 21.55ean azkenekoa. Denak Kaxetaraino.

Oraingoz ordutegia probisio- nala da eta aldaketak izan ditzake. Gainera, betiko herriokiko loturari eustea- z gain, Goierriko beste herri- etara joateko aukera onak izango dira, Ordizia edo Beasainen dagokion auto- bus aldaketa eginez. Zuma- rragako ospitalera ere egon- go da zerbitzua. (Xehetasu- nak 15. orrian).

Labur-labur

● **Zikloturisten irteerak:** uztailaren 6an, Ataun-Lizarr- a-Urba (134 Km) eta uztailaren 13an, Ataun- Arrasate-Arlaban (140 Km). Animo!!!

● **Heriotzak herrian.** Hamabost egunen barru 2 herri- tar hil zaizkigu, Pedro Jose Imaz Grazina Berrikoa eta Pedro Armendariz Astigarretxea baserrikoa. Beren sendiekin bat egiten dugu euren nahigabea.

Josune Aldabe

ORDIZIA

9 urtez ordiziarrek euskalduntzen aritu eta gero bere ateak itxi ditu Barrena Kultur Etxean zegoen Udal Euskaltegiak. Ekainaren 30ean amaitu zitzairen kontratua euskaltegian lanean ari ziren 3 ikasleei eta ondorioz, Udalak ez berritze-ko erabakia hartuta, langabezian daude dagoeneko. Ez jarraitzeko honen arrazoiak bilatzerakoan 3 irakasleengana jo eta hauen ustez arrazoiak garbia da "alkatearekin bilera egin genuen eta honek kontratua ez luzatzearen intentzioa azaldu zigun, Ordizia euskalduntuta zegoela jada eta Udalarentzat karga handia zela euskaltegia irekita edukitzea. Proposatzen ziguna pribatizazioaren irtenbidea zen eta guk ez genuen hau hain garbi ikusten".

Udal Euskaltegia lanean aritu den urte hauetan 400 ikasle inguru euskaldundu ditu eta irakasleek adierazi digutenez ez dute Udalari gastu handia suposatuko dionik euskaltegia zabalduta edukitzea, izan ere HABE ematen duen dirulaguntza handia da eta bestalde matrikulazioaren bidez jasotako sarrerak ere hor daude. Irakasleon ustea da baita ere orainarte Udalak Euskaltegirako gastatzen zuen diru hori euskararekin zerikusirik ez daukan beste

partida batetarako erabiliko ez ote duen. "Euskararekin zerikusia duen elkarte edo talde batentzat bada sikira, gaitzerdi", diote irakasleok.

Orainarte itxiera honen berri ez zabaltzearen arrazoiari buruz galdetzean ze-

ra esan digute "gure alde dagoen euskarri sendo baktarra ikasleek osatzen duten multzoa da, hauez gain ez dugu nabaritu ez alkate, ez alderdi politiko desberdinetako zinegotzi, ez inongo batzorde edo elkarteren inolako kezkarik Udal Eus-

kaltegiak martxan jarrai dezan, ez dugu hauen alde-tiko babesik". Hemendik aurrera, beraz, Barrenan euskara ikasten ari ziren ikasleek beste euskaltegi batera jo beharko dute bere horretan jarraitu nahi badute behintzat.

San Fermin zozketa

San Jose Zaharren Egoitzaren aldeko San Fermin zozketa igandean izango da. Aurten Etxezarreta kaleko Txindoki tabernan izango da berau, izan ere Eguzki tabernak bere ateak itxi zituela eta taberna honek hartu du aurten zozketa famatu honen ardura. Gainera badirudi aurten ere 100.000 boleto inguru salduko direla.

Apaiz berria

Hemendik aurrera apaiz berria izango dugu Ordizian. Izan ere uztailaren 5ean apaiztuko zaigu Jokin Lizaso Eskisabel arratsaldeko 7etan, eta Jose Maria Setien gotzaina bertan dela, parrokian egingo den meza.

Aitor Calvillo



Urbitate Vs Tximista

XVIII Lagunarteko Futbol Txapelketa bere azken urratsetara heldu da. Igandean jokatu da lehiaketako irabazlea zein talde izango den erabakiko duen neurketa. Urbitate Sagardotegia alde batetik eta Tximista Sagardotegia izango da bestaldetik. Finalerdiak nahiko parekatuak izan ziren prorroga eta penaltiak tarteko izan zirelarik. Larunbatean Tximista eta E.R.Matxainek jokatu zuten euren artean. Norgehiagoka bina amaitu ondoren prorroga golik gabe eta penaltiak izan ziren finalerako pasea Tximistakoei eman ziotenak. Bestalde, igandean Urbitatek 2 eta 1 irabazi zion Morapiosi. Bigarren gol hori prorrogako bigarren zatian sartu zuten Bustuntzako mutilek.

Antolatzaileek orain San Fermin bezperarako jarri dituzte bi partidua, bata 3. eta 4. postuak erabakitzeko goizeko 9:30etan eta hurrena, final handia, 11:00etan non aurtengo txapelkun izango den taldea erabakiko den. Ondoren jokalaria partehartzaile guztien artean bazkaria egingo dute herriko pilotalekuan.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 **ORDIZIA**

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri 10 ☎ 88 61 14 **ORDIZIA**

SEGURA

Sanjoanetako herri probak



San Joan festetako ekitaldirik aipagarriena, herrian inoiz txistulari izan direnen alardea izan zen. Bertan, 80 txistularik parte hartu zuten.

Arrantza Txapelketa: 11 partehartzaile. Lehena: Eneko Agirrezabal (16 amurraia). **Bola Probin-tziala:** 49 partehartzaile. Irabazlea: Martxeliño Agirre. **Toka Probin-tziala:** 24 partehartzaile. Desenpatean, Karlos Irastorza irundarrak Antonio Agirre herritarri irabazi zion. **Gazteen bola:** 17 partehartzaile. Eritz Intxausti irabazle. **Gazteen toka:** 17 partehartzaile. Iban Berasategi aurrena. **Koadrilen arteko 2. futbito txapelketa:** Neskak: 3 taldek parte hartu zuten. "Segurako emakunde" irabazle. Mutilak: 4 taldek parte hartu. "Dos Kaballos" aurrena. **Plater-tiroa:** 17 herritarren artean Joxe Miguel Aldanondo izan zen lehena. **Marraski Txapelketa:** 130 umek parte hartu zuten. Irabazleak: Eskolaurrea: Maider Sistiaga. Igo eta 2. maila: Mikel Biain. 3. eta 4. maila: Eztitxu Telleria. 5. eta 6. maila: Soraya Paredes. **Jubilatuak jokoak:** emakume eta gizonezko, 40 partehartzaile. Irabazleak: potean, Gregorio Izagirre, igel-jokoan, Pedro

M^a Galparsoro eta tokan, Joxe Ormazabal. **Toka herrikoia:** Emakumezkoak: 25 partehartzailetatik Marisol Mariano izan zen hoberena. Gizonezkoak: 63 lagunek parte hartu zuten eta Gurutz Goikoetxeak irabazi zuen. **Pelota:** finala: I. Artola-Almandoz 22-15 Haritz I. Etxeberria.

Kirol emaitzak

Txirrindularitza: ekainaren 14an Legorretan korritu zen 2. mailako kadeteen taldekako erlojupekoan, Jon Garziandiak eta Iberdrolako beste 4 txirrindularik osatutako taldea geratu zen lehe-

na. Guztira 23 taldek parte hartu zuten eta 30 kilometroko ibilbidea egiten 39' eta 53" behar izan zituzten, 2. taldeari 53" ateraz.

Pisu-jaurtiketa: ekainaren 24an Cartagenan izandako estatu mailako pisu-jaurtiketan, Maite Telleria 11,63 metroko jaurtiketa eginda, 12 partehartzailetatik 5. geratu zen.

Bola: ekainaren 22an Olaberriko Sanjoanetako bola saioa Xepiño Agirrek irabazi zuen 36 birla jota. Ekainaren 29an, berriz, Gipuzkoako taldekako 2. saioa jokatu zen Seguran. Bertan, hernaniarrek Igo postuari eustea lortu zuten (528 birla) eta segurarrek 2. egin zuten (513 birla). Egun horretako lehiaketaren irabazlea Martxeliño Agirre (49 birla) izan zen eta 3. Jexux M^a Intxaustik (48 birla) egin zuen. Bestalde, Gipuzkoako bikotekako txapelketan, uztailaren 6an Mutiloan eta 13an Herreran, 3 parejak parte hartuko dute Seguratik.

Labur labur

- Ekainaren 22an, Nerea Beldarrain eta Irene Ga-

raialde bataiatu zituzten Segurako eliza nagusian. Aurrekoetatik hona Eukene Goikoetxea ere bataiatu zuten.

- Ekainaren 27an ireki zuten **Oxiña Igerilekua**. Taberna, bertan bazkari nahiz afariak egiteko aukera eskainiz, Gorka Izagirrek eta Joxean Martinek hartu dute. Sokorrista lanetan Beñat Elorza eta Irantzu Arrizabalaga idiazabalarra arituko dira.
- **Igeriketa ikastaroa:** Joxe Elkororen ardura-pean, 3tik 11 urte arteko umeentzat igeriketa ikastaroa izango da uztailaren 7tik 24ra, 12:00etatik 13:00era. Prezioa: 3.000 pezeta. Helduekin taldea osatzen bada, beste ikastaro bat izango da. Izen emateak igerilekuan.
- **Antiguako Pelota Txapelketaren** antolatzaileek urtero atera izan duten adizkariak, Segurako pelotaritzari 5 orrialde eskaini dizkio, herri honek txapelketari egindako aportazioagatik.
- **Elorri K.E.ak**, 3. aldiz, gauetako diapositiba emanaldia antolatzeko asmoa du plazan, uztailaren 14tik 18ra.
- **Aterpetxea:** urritik ekainera, astebeteko txandatan ikastetxeetako haurrentzat "Euskal girotze barnetegiak" izan dira. Uztailerako eta abuztura-ko, 4. aldiz jarraian, 15 eguneko 4 txandatan, ingeleseko ikastaroak izango dira.

Joseba Telleria

Kirol eskolarra

96ko urritik 97ko ekainera, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko 55 ikasletatik 42k hartu dute parte eskolarteko kirol jokoetan. Atletismoan eta krosean 10 neska eta 13 mutil aritu dira, futbitoan 4 neska eta 17 mutil, mendian 6 neska eta 5 mutil, pelotan 10 mutil, mahai tenisean 4 mutil, trialsinean mutil bat, txirrindularitzan 2 mutil, eta tenisean 8 neska eta 5 mutil. Udaberriko txapelketan, atletismoan 11 neska eta 13 mutil aritu dira eta futbitoan 11 neska eta 20 mutil. Ardura orokorra Xabier Intxaustik eraman du eta entrenatzaile-laguntzaile lanetan ondorengoak ibili dira: futbitoan, Jon Garziandia, Asier Goiburu, Ibai Gonzalez, Uritz Gonzalez, Ibai Telleria, Ekhi Albizu eta Inge Olano; mendian, Txetxu Ormazabal eta pelotan, Patxi Etxeberria.

LAZKAO "Euskal kulturaren alde Goierrin" proiektua



GOIERRITARRAren aurreko alean aipatu genizuen moduan, Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, Lazkaotik hasi eta Goierri bailara osoa euskalduntzea du helburu. Helburu garrantzitsu hau bete asmoz, aipaturiko kultur elkartek, proiektu bat prestatu du. Proiektu hau, aurreko alean agertu genizuen azterketa soziolinguistikoko datuetatik abiatuz osatu dute.

Lan honen funtsa, euskaraz funtzionatzen duten ekintza eta elkarteek horrela jarrai dezatela lortzea da, elebidun edo gazteleraz funtzionatzen dutenek euskarari geroz eta sarbide handiagoa ematea eta sortuko diren berriak euskaldunak, euskaraz funtzionatzen dutenak, izatea.

Lazkaoko haur eta gazte guztiek dakite euskaraz, euskal ereduan eskolatuak izaki. Azterketa soziolinguistikoaren datuek adierazten dute euskaraz hitz egiteko ohitura ere gehienek badutela. Haur eta gaz-

teek jakinagatik, ordea, badira ekintza batzuk gaztele-raz burutzen direnak.

Horren arrazoi nagusia irakasle, entrenatzaile eta arduradunek euskaraz ez jakitea da. Hauetako gehiena borondatez lanean ari den jendea izaki, zaila da hizkuntz aldetik baldintzak jarzea.

Proiektu berri honetan ahalegin berezia egingo dute gazteen eta helduen aisialdirako euskarazko aukerak eskaintzen, beti ere haurrei zuzenduak eta jada antolatuak dauden ekintzak euskeratzea ahaztu gabe, noski.

Bi bidetatik bideratuko du Goiherriko Euskal Eskolak aurrerantzean bere lana:

Eskolorduz kanpoko ekintzak antolatzen dituzten talde eta elkarteekin **elkar-lana** bultzatu eta hitzarmenak sinatu euskararen erabilera eta sendotzea bermatzeko.

● Elkarte bakoitzak bere neurriko hitzarmena sina-

eta betearazten saiatuko dira.

● Lanerako hartuko dituzten langile berriak, euskaldunak izan ditezten ahallegina egiteko eskakizuna egingo zaie.

● Lanean ari diren langileek euskalduntzeko dituzten aukerei buruzko informazioa emango zaie.

Bestalde, Goiherriko Euskal Eskolak, bere eguneroko egitasmotan jarrai-

tuko du. Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak, kulturaldiak, hitzaldiak, lehiaketak, afariak, erakusketak, txangoak, Gerriko Ikerlan Sariketa eta abar antolatuz.

Azkenik euskara eta euskal kulturaren alde zaudeten guztiei elkarlanerako gonbitea bidaltzen zaizue Goierri euskalduntzeko bidea elkarrekin egin dezagun.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*



Ekain txapeldun

Ekain Arruabarrena txirridulari lazkaotarra, herriar gehienok ezaguna dugu kirolari dion maitasunagatik eta bizikleta gainean egiten duen esfortzuagatik.

Gainera, azken aldian, bere lanaren ordaina jasotzen ari da eta Espainia Estatuko txapeldun bihurtu zaigu paralisia zerebrala dutenen mailan. Atarrabian burutu

zen txapelketa horretan erlojuz kontrako saioan bigarren postua lortu zuen eta zirkuitu bati bueltaka egin zuten lasterketan berriz, lehenengo postua lortu zuen. Bi lasterketako denborak batuz gero lehenengo.

Esan beharra dago baita ere Atlantako paraolinpiadetan parte hartu zuten bi kirolariri gailendu zitzaizela Ekain, eta bere ilusio haundiena Sidneyko olinpiadetan parte hartzea dela. Jasotzen duten laguntza eskasa medio, ez da erraza kirolari hauek egiten duten lana. Ekainek halere izugarrizko ilusioa du eta suguru gaude bere balentria gehiagoren berri eman beharrean egongo garela horri hauetan. Animo beraz Ekain!



MASTER

✓ Sukaldeko altzariak
✓ Elektragaiak

Mariaratz, 4 88 86 84

BEASAIN



**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

ZALDIBIA

Aurki onartuko dira Arau Subsidiario berriak



Goiko Bikarioetxe alde babes ofizialeko etxetarako izendatu da.

Zaldibiaren planeamendurako Arau Subsidiarioen proiektua amaituta dagoelarik, aurki izango du behin betiko udal onarpena. Proiektu berrian esaten denez, "hurrengo zortzi-hamar urtetan erruz alda daiteke Zaldibiaren itxura urbanistikoa. Arau berriek gogor defandatzeko dituzte nekazaritza-lurrak, baserriaren eta baserritik bizi direnentzat etxebizitzak egiteko erraztasunak ipini eta gaineratikoetzat zeharo murriztuz. Industriegunea Elbarrenean izango da".

Bestalde, aurreko arautan, herri barrua eta Ibarguren baserriaren tartean, bariantea azaltzen zen; orain, ordean, hori kale bihurtuko da. Bilore edo Mendiondotik hasi eta Goiko Bikarioetxeraino iritsiko da kale hori, eta kalearen bi aldeetan etxebizitzak egingo dira, noski.

Goiko Bikarioetxe alde hori babes ofizialeko etxebizitzak egiteko izendatu da.

Herritarrek guzti honen berri zehazkiago jakin dezaten (nahi izanez gero) aurki ipiniko da guztion eskueran planoak, Kultura Etxean.

Iker Atxotegiren bisitak

HBk aurkeztu eta ekainaren 19ko plenoan presoen dispartzioaren kontrako mozioa onartu zen. Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua eta beste hainbat lege artikulutan oinarriturik, sakabanaketa lege kanpoko delat agurdatu ondoren, herriko arazoari heldurik, HBren mozioak honela dio: "A) Sakabanaketa lege aurkako politikak Iker Atxotegi herritarraren sendiari eta lagunei suposatzen dien zama ekonomikoari aurre egiteko, gaurtik aurrera egingo zaion bisitaldi bakoitza kilometroko duroa ordainduz laguntzea. B) Udalarari suposatuko dion gastua Foru Ogasunari ordaintzen zaion zergetatik kentzea. C) Iker Atxotegi herritarraren egoeraren be-

rri zuzena izateko, Udalkideon bisitaldi ofiziala eskatzea, dagokionean".

Don Jose Maria

Sukia apaiza hil da

Don Jose Maria Sukia Garmendia Errekalde baserrian jaio zen orain dela 86 urte eta ekainaren 25ean hil zen Donostiako Onkologikoan, urte luzez bertako kapilau izan ondoren. Don Jose Mariak gerra garaiko egun latz haietan eman zuen meza berria. Ortuella, Sestao eta Palentzia destinatutik egon ondoren, Donostiako Onkologikoko kapelau izan da 22 urtez, berak behin aitortu zidan eran, askatasun osoz, fededunei eta gabeei, azken trantzean laguntzen.

Badut Jose Mariaren beste irudi bat ere gogoan, apaizgintzako urrezko ezteiak ospatu zitueneko, oraintxe hamar urte, meza ematen, Don Joxe Migel Barandiaran ondoan zuela. Ospakizun hori zela eta aterra zuen estapak honela dio goialdean: "Bai ederrak direla mendi gainean Bakea hotsegiten duten oinak". Bake horixe opa diogu.

Baina zilegi bekit orandik Jose Mariaren beste aipamen bat egitea. Hark idatzia da, beste batzuen artean, "Monografía histórica de Zaldibia" izeneko liburua. Oso liburu interesgarria edozein zalbitarrentzat edo Zaldibiaren gainean zernahi

jakin nahi duenarentzat. Handixe euskeratu ditut despedidako hitzok: "Gure gazteria, lur zaharrek hazi berria, izan dadila gai egia-ri muina aurkitzeko, oraingo eta geroko biziaren gozoa dasta dezan".

Hamalau autobus

Uztailaren batz geroztik autobus zerbitzu berriak funtzionatzen du Goierri osoan. Lau ibilbide nagusi hartzen ditu:

a) Idiazabal-Beasain-Ordizia-Zaldibia, b) Ataun-Beasain-Lazkano-Ordizia, c) Zegama-Segura-Idiazabal-Beasain-Ordizia eta d) Legorreta-Ordizia-Beasain-Ormaiztegui-Zumarraga (ospitalea). Egutero, goizeko 7etatik gaueko 10ak arte ibiliko dira autobudak.

Enpresa berriak Goierrialdea Bus du izena eta Zaldibiako Etxabe Autobusak eta Zegamako Gaiara Autobusak sartu dira proiektu berrian. Lineak Diputazioarenak izanik, ohikoa denez, autobusak ere Diputazioak ipini beharko ditu, eta 240.000.000 milio-ko diru kopurua erabiliko du horretan.

Enpresa berri honek 16/20 laguni emango die lana eta enpresaren urteko gastuak, denak jota, 120.000.000 pezetakoak izango dira.

Rufino Iraola

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 88 80 23


LAZKAO

IBAI-ONDO

ZURGINTZA

ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g

☎ 880543

BEASAIN

ZEGAMA

Mugaz muga 97

Datorren uztailaren 19an eta 20an Mugaz muga 97 burutuko da. Ekintza honen helburua, zegamarrok gure herriaren mugak zehatz mehatz jakiteaz gain, asteburu bat herri giroan pasatzea da.

Besteak beste bi egunean herria puntarik punta zeharkatzen da. Lehenengo egunean Maittegitik irteten eta Arrano Aitz, Elor Txiki, Aizkorri mendikatearen babesean gaua pasako da. Igande goizean gainetik zatia egin ondoren eguerdirako Olatxo ingurura jeitsiko da jendea, ondoren lagunarteko bazkari batekin ibilaldiari bukaera emanaz.

Beraz, adierazi, ibilaldi hau zegamar guztoi zabalik dagoela. Izenematea: uztailaren 1etik 13ra bitartean, Udaletxean. Telefonoak: 80 13 51 - 80 11 15.

Mapa toponimikoa

Mugaz mugarekin loturik Udalak aurtan argitaratu eta herritar guztiei banatu zaizen Toponimia maparen

aurkezpena egingo du uztailaren 18an Kultur Etxean. Aurkezpena azterketa hau egin duten arduradunek egingo dute, hau da etnogintzako Luis del Barrio eta Luis Mari Zalduak.

Kristau elkartearen bazkaria

Datorren igandean, uztailaren 6an, Kristau elkarteak 40 urte luzez sakristau zerbitzua burutu duen Txomin Landari bere eskerrena adieraztea erabaki du. Horretarako besteak beste, igandeko Meza izango da. Ondoren funtzio desberdinen adierazpena egiteko dauden kanpai soinu ezberdinak entzuteko aukera izango da eta jarraian kurtsu bukaerako bazkaria Ostatun.

San Bartolome jailetako bilera

Festa-batzordeak antolatutarik, gaur, uztailak 4, arratsaldeko 5.30etan bilera egingo da Udaletxeko Batzar-aretoan. Herritar guztiok gonbidaturik zaudete.

Haur abesbatzen jaialdia

Datorren uztailaren 12an, larunbata, arratsaldeko 6.30etan kontzertua izango dugu San Martin Parrokian. Kontzertuan parte hartuko duten abesbatzak: Orkatx Txiki, Legazpiko Elusta eta Zumaiako San Pedro Txiki abesbatzak.

Autobus ordutegi berria

Goiekik eta Goierriko udalek bultzaturik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin Goierriko herriak elkar komunikatzeko autobus zerbitzu berria martxan jartzea lortu da. Enpresa berria Zaldibiko Etxabe autobusak eta Zegamako Gaiara autobusak elkartzuz sortu da.

Era honetara Zegamatik Zaldibi, Zumarraga edo beste herriren batera joan ahal izateko autobus aukera ugariagoak izateaz gain, ordutegi elkartuak egitea lortu da. Besteak beste Zu-

marragara doan autobus hau ospitaleraino joateak bati baino gehiagori onura bikaina ekarriko diolakoan gaude, orain gure eskuetan dago zerbitzu hau iraunaraztea eta horretarako ahal den gehiena erabilzea komeni da.

Zegamatik Ordiziara:
astelehenetik ostiralera:
6:40, 8:00, 10:00, 13:00,
15:00, 17:00, 18:15 eta
19:30.

Larunbatetan: 10:30,
12:30, 15:00 eta 17:00.

Igande eta jaiegunetan:
10:30, 15:00 eta 18:00.

Beasaindik Zegamara:
astelehenetik ostiralera:
7:35, 9:35, 11:35, 13:35,
15:35, 17:50, 19:20 eta
20:20.

Larunbatetan: 10:05,
12:05, 14:35 eta 19:05.

Igande eta jaiegunetan:
10:05, 14:35, 17:35 eta
22:05.

Eduarne Albizu



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
88 87 02
BEASAIN




88 55 00 ORDIZIA

GOIERRITARRA



88 96 12

Autowag, s.a.



Gasolina eta Diesela

88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN

ORMAIZTEGI

Goierrialdea autobus zerbitzua martxan

Goierriko autobus konpainia batzuk bat eginez, eskualdeari garraio zerbitzu bateratu bat emateko, Goierrialdea deituriko autobus konpainia eta zerbitzu berria sortu dute.

Autobus zerbitzu berria uztailaren lehen jarri zen martxan. Autobus berriak Goierri guztian zehar ibiliko dira. Ormaiztegiarrok ere uztailetik aurrera zerbitzu berri hau erabiltzeko aukera izango dugu. Hain zuzen zerbitzu horren barnean, Zumarragako Ospitalera doan autobus zerbitzua dago, berau Ormaiztegin gelditu eta igaroko delarik.

Zuzenean Zumarragako Ospitalera doan autobus hau herriko ohiko autobus geltokietan geldituko da, bai joateko eta baita etortzeko ere. Autobusak egunero ibiliko dira, larunbat eta igande goizetan ezik, egun horietan ez baita mediku kontsultarik egoten.

Zumarragako Ospitalera joango diren autobus hauek Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Beasain, Ormaiztegi, eta Zumarraga ibilbidea egingo dute. Ormaiztegitik Zumarragara joateko autobus hauek 10 minutu beharko dituzte. Autobus hauen ordutegia ondorengoa da:

Ospitalera joateko Ormaiztegin irteera orduak: 8:50etan, 11:35etan, 15:50etan eta 18:25etan.

Zumarragako Ospitaletik Ormaiztegiara itzultzeko orduak hauek dira: 10:00etan, 12:15etan, 17:15etan eta 20:00etan.

Abuztuan, berriz, autobus zerbitzua murriztagoa izango da, oporraldia dela eta goizean autobus bat eta arratsaldean beste bat ibiliko dira. Abuzturako autobus ordutegia ondorengo delarik:

Ospitalera joateko: 10:35etan eta 15:05etan. Itzulerakoa: 12:15etan eta 17:15etan.

Giro ederra San Joanetan

San Joan inguruko ospakizunak giro ederrean burutu ziren gure herrian. Egitarauari hasiera haurrentzako prestaturiko hainbat ekitaldiek eman zioten. Hain zuzen larunbat arratsaldean haurrek herriko enparantzako loraontzi eta lorategien zaintza egin zuten. Ondoren haurrek Xabier Kerejeta lorazainaren adierazpenak jarraituz lora landaketa egin zuten. Zeregin horiek amaitu ondoren, haurrek jokotan parte hartu zuten. Jarraian merienda eta opariak banatu ziren.

Igande goizean haurrentzako bereziki prestaturiko elizkizuna ospatu zen. Arratsaldean Txindata Musika Eskolako ikasleek kurtsu bukaerako kontzertua



eskaini zuten. Beraien musika zaletasunez bertaraturiko ikusleek une on bat igarotzea lortu zuten.

Astlehenean, San Joan bezperako ekintzak berreskuratu ziren. Urteroko ohi-turari jarraituz festa giro alaiean burutu ziren tantaia jartzea eta San Joan suaren piztuera. Suaren inguruan Bartzelonatik Goierriara hurbilduriko Jeff Bradley kanadiar artistak magia, umorea, musika eta abarrean oinarrituriko goi mailako ikuskizun benetan bitxia kaleratu

zuten. Bertaraturiko guztion umorea eta algara pituarazi zituelarik. Haurrek eta helduek bere ikuskizunean partaide izateraino bereganatu zituen, ikusleen aldetik antzezlearen lana behin eta berriz txalotua izan zelarik. Antzezleak bere lana amaitzean herritarrok eginiko harrera ona goraiatu zuen, guztionganako eskerrik beroena luzatuz agurtu zelarik.

Aitziber Murua

Argazkiak: Iñaki Etxebarria

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

JON URRUJULEGI SEGURARRAK 'ARRAGOA' NOBELA KALERATU DU: "Egiaren eta fantasiaren arteko marra non dagoen, irakurleak igarri beharko dio"

Jon Urrujulegi euskararen munduan dugu batik-bat ezaguna. 1940an Zegaman jaioa eta Seguran hazia. Garai estuetan euskarazko irakaslea, artikulu askoren autore eta hainbat liburuen euskaratzailea. 'Bizia eta bizitzaren eboluzioa' liburua argitaratu zuen 1987an.



Jon Urrujulegi gaur egun Donostian bizi da eta lanbidez Pasaiko Udalean dihardu itzultzaile.

- Segurarra zara, baina zegamar bezala ere azaldu zara. Nola da hori?

- Ni segurarra naiz, hor ez dago dudarik. Baina gertatzen da paperez zegamarra naizela, Aztiene baserrian jaioa. Nire paperak Zegamako Udaletxean daude. Urtebete inguru nuela aldatu ziren gurasoak Segurara eta Segura izan da nire herria. Hala ere, 11 urterekin Arantzazura eraman ninduten (nobelan hori ondo agertzen da) eta kolegioko aldia bukatu ondoren, urte gutxi eman nituen Seguran. Nola-bait esateko, zegamar jaiotako segurar donostiartua naiz. Goierritarra.

- Zerk bultzatu zaitu nobela hau idaztera?

- Aspalditik nerabilen nobela honen gidoia buruan, oso mamitua neukan. Bertako pertsonaje gehienak zirriborrratuta neuzkan, baina ez nintzaion idazteari lotzen. Eta halako batean hor jarri nintzen ordenadorearen aurrean, buruan neukana pantailan islatu nahirik. ETA-ri buruzkoa da nobelatuena eta aldi berean sinesgarriena. Nik ETA nahikoa ondo eza-

gutzeko aukera izan dut, nola barrutik hala kanpotik ere. Eta barruan bor-bor neukana kanporatu nahi izan dut.

- Nobela nahikoa autobiografikoa dela diote.

- Esan izan da lehenbiziko nobela autobiografiko xamarra izan ohi dela. Kasu honetan egia da, baina ez erabat. Erabat egia balitz, ez zukeen hain interes handirik edukiko. Pertsonaje eta gertaera askok errealitatea dute hasieran, baina gero gertatuak nobelatu egin ditut, esan nahi da, irudimena martxan jarri eta errealitatean gertaera xumea zena, liburuan puztuta agertzen dela, exajeratua. Baina beti errealismoaren irudipena galdu gabe. Egiaren eta fantasiaren arteko marra non dagoen, irakurleak igarri beharko dio, baina ez zaio erraza gertatuko.

- Zeintzuk dira nobelaren ezaugarri nagusiak?

- Intimismoa, errealismoa, abertzaletasuna. Nobela intimista egin nahi izan dut. Nobela bat idaztean -orain konturatu naiz, jakina- irakurlearen aurrean erantzi bezala egiten zara. Pertsonaje-

en afirmazioak eta bizipenak zeureak bezala ikusten ditu irakurleak. Eta izan ere, pertsonaje denak dira nola-bait autoreak, denek dute autorearen zerbait.

Errealismoak, berriz, (edo honen sentsazioak behintzat) ez luke irudimenarekin kontraesanean egon behar. Pasarte asko dokumentatuak edo errealak izatea garrantzizkoa dela uste dut, beste pasarte nobelatuak ere irakurlearengan errealismoaren "inpresioa" sor dezaten. Kutsu errealista duen fantasia erraz itsasten da irakurlearen baitan. Bestela fikzioa izango litzateke.

Abertzaletasuna bete-betean tratatzen saiatu naiz. Pasarte batzuek polemika ere sor dezakete, alditan nahikoa bizia gainera. Baina, ez dut autozensurarik erabili.

Gero espetxearen mikaztasuna, torturaren sufrimenduak, Parisko amodio-kontuak (batzuentzat agian lizunkeriak), ETA-ko liberatu-lanak, Francoren zigorpean zegoen Euskal Herriaren askatasun egarria islatu nahi izan dut.

- Zein da nobelaren mezua?

- Nobela 50 eta 60ko bi hamarkada horien bueltan desarroilatzen da. Orduko Euskal Herria eta gaurkoa azalez asko aldatu dira, baina muinean ia berdin jarraitzen dute. Hauxe da nire ustea. Eta uste hau adieraztea litzateke nolabaiteko mezua.

- Nondik "Arragoa" titulu hori?

- Tituluarena historia bitxia da. Nobela 1. pertsonan hasi nintzen idazten. Intimismoa eta gauza horiengatik. Gero konturatu nintzen 1. pertsonan zaila dela gauza asko 3. pertsonan bezala adieraztea. Eta idatzitakoa 3. pertsonan jarri eta hala bukatu nuen. Eta "Igantzi" eraman behar zuen titulua. Hitz laburra eta oso ozena, atsegina. Baina bukatu eta gero ez zitzaidan gustatu 3. pertsonan eta berriro dena 1. pertsonan jarri nuen (ordenadorean ez da oso zaila). Eta, jakina, 1. pertsonan ezin da titulutzat protagonistaren izena jarri. "Igantzi" kendu eta "Bihoztzean sua" otu zitzaidan, baina editoreari ez zitzaion gustatu, kulebroi kutsua zuela eta. Arragoa substantziak purifikatzeko ontzia da. Titulu bezala, ETA-ren metafora.

- Zein irakurle-mota edukiduzu buruan?

- Adinez 40/45 urtetik beherakoa batik-bat eta edukiz ETA-ren belaunaldia. Euskara aldetik landua dela esan daiteke, baina ez bihurria, ez konplikatua. Euskara ondo dakienak ondo ulertuko du, ikastolatik ez pasatu arren.

IRU RODAMENTUAK - JAI ALAI PILOTA TXAPELKETA ORDIZIAN:

"Pelota indartu nahi dugu"

Ordiziako Jai-Alai pelotazale elkarteak antolaturik, eta Iru Rodamentuak eta Udalaren laguntzaz, pelota txapelketa ari da jokatzen Beti-Alai pelotalekuan. Marzial Garmendia da Jai-Alai pelota eskolaren arduradunetarikoa eta berak eman dizkigu txapelketaren eta helburuen berri zehatzagoa.

Txapelketa maiatzaren hasieran hasi eta uztailearen 20an jokatuko dira finalak. Larunbat goiz eta arratsaldeetan 16 partidu jokatzen dira, eta igande goizetan, 8. Guztira 128 bikote ari dira parte hartzen, 4 mailatan banatuak. Benjamin A mailan 15 bikote ari dira; Benjamin B mailan 40; alebinetan 36 eta infantiletan beste 36.

Marzial Garmendiak zehaztu digunez, maila guztietan launako taldeak egin dira, bikote bakoitzak gutxienez 3 partidu jokatzeak aukera izan dezan.

Bikoteak Oiartzungoak, Donostia aldekoak, Tolosaldekoak, Urolakoak, Deba Garaikoak, Goizuetakoak,



Leitzakoak eta hemen Goierri bertakoak dira.

Iru Rodamentuak - Jai Alai txapelketa antolatzearen arrazoiak, 3 dira Garmendiaren esanetan: "pelota indartu nahi dugulako; Jai-Alai elkarteak urtetik urtera hainbesteko prestigioa hartu duen txapelketa antolatzeak beharra ikusten duelako; eta pelota bakar-kako kirola denez, txapelketarik jarri ezean, haurrak beste kirol batzuetara pasatzen direlako".

Pelotari gazte hauentzako Ordiziako Jose Luis Azanzak egiten ditu pelo-

tak. "Urte asko daramatza horretan. Benjamin eta Alebin mailetakoko pelotarientzat pelota bigun eta goxoak egiten ditu, eskuak ez mintzeko. Infantil mailan 'toke-

ko' pelotak erabiltzen dituzte, adin honetatik aurrera pelota mota honekin hasi behar baitute pelotariak", dio Marzialek.

Txapelketa bukatzera doa, uztailearen 20an izango dira finalak, haurren jaien barruan, arratsaldeko 4.30-tatik aurrera. Datozen urteetan txapelketarekin jarraitzea nahi dute antolatzaileek. Gauzak honela, Iru Rodamentuak, Ordiziako Udalak eta Segura Irratiaren laguntza eskertuz bukatu nahi izan du Marzial Garmendiak elkarrizketa, "beraien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango baitzen 128 bikoteko txapelketa bat antolatzea".

Jai-Alai pelota eskola

1971. urtean sortu zen Ordiziako pelota-eskola. Gaur egun 7-15 urte bitarteko 40 bat mutil ari dira bertan, 4 irakasle-aren ardurapean. Irakasleak Jon Garcia, Idoia Mendizabal, Luis Iraeta eta Marzial Garmendia dira.

Pelotan jokatzen eta pelota ezagutzen erakusten zaie bertan. Marzialen esanetan, "ez da kirol erraza, konplikatu dela esango nuke. Kirol indibiduala da eta pelotarien adina gaztea da. Aliziente gehiago eskaintzen duen kirol gehiago daude, taldean lan egiten dutenak, Gipuzkoatik kanpora ateratzen direnak, nazioarte mailako lehiaketak izaten dituztenak...".



Legazpia Kalea, 3

- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Kafe eta infusio bereziak

Uztailaren 17an zabalik

ORDIZIA

GOIERRITARRA



88 96 12



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz bestea

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 88 26 73



LOURDES 1954 KO PEREGRINAZIOA ATAUNGOAYA ETA GREGORIOKOAK

Ataundik Lurdesa erromesaldia

Ataungo San Gregoriotik eta Aiatik bi autobuskada joan ziren 1954an Lurdesa pelegrinazioan. Don Mario apai-zak antolatu zuen bidaia: egun batean joan, bertan lo egin eta hurrengoan buelta egin zuten. Ataungo Joxe Etxe-berriak utzi digu argazkia.



*Seriotasuna, profesionaltasuna eta aukera
ezberdinak aurkitu nahi badituzu*

ORLEGI

Elikadura Naturala eta Belardenda

Nafarroa Etorbidea, 5

Kale Nagusia, 15

☎ 162110

BEASAIN

Denda berria zabalik

- ✓ Bolumenaren murrizketa
- ✓ Psikologo Transpersonala
- ✓ Medikuntza Holistikoa
- ✓ Medikuntza Naturala (medikua)
- ✓ Masajista
- ✓ Dietista espezializatua
- ✓ Estetizista
- ✓ Solariuma





belien

*Zire ezkontza zerrenda prestatzeko gustoko gauza
ugarri aurkituko dituztu*

Urdaneta Kalea, 24 eta 25 ☎ 16 22 87 **ORDIZIA**